

BERMEOKO LURRALDEAREN HISTORIA

Bermeo eta bere inguruko lekuen lehen aipu historikoak XI. mendekoak dira⁶⁵:

1051n, Eneko Lopez eta bere emazte Todak, Busturiko Axpeko Andra Maria eliza-
ren dohaintza egitean:

*“Sancte marie de Izpea, subtus penna, in territorio Busturi, cum sua decania
pernominata Bareizi (...) simili tenore donatione confirmationeque promitto et
condono prefato sancte Marie cenobio illas terras de Udai Balzaga et de Luno
et de Gernica et de Gorritiz en aiuso, et de Vermeio et de Mundaka et de Bus-
turi en assuso (...)”*

1053an, berriro leku legez azaltzen da Bermeo, Eneko Lopezek, Gaztelugatxe ingu-
ruko lurrak ematean San Juan de la Peñako monasterioari:

*“in loco qui dicitur Sancti Iohannis de Castiello, quod est in territorio de Bakio,
et alia parte de Bermeio (...) Hereditates in loco qui dicitur Vermeio, kasas et ter-
rras et mazanares et pomares (...). Et alia parte damus in loco qui dicitur Erko-
reka, totam illam hereditatem quam habemus ingenuam”*

1082an, Donemiliagako monasterioari eginiko Muxikako San Bizente Ugartekoaren
dohaintzan, portu legez azaltzen da Bermeo eta bertan San Migel izeneko eliza bat aipatzen da:

*“unum monasterium reliquiis ferente S. Vicenti de Uarthe, in termino Bizkai,
cum tres decanias, una Ibargoricika, et alia decania que vocitant Tuda cum sua
medietate, et illa ecclesia San Micaelis arcangeli in portu de Vermelio, in ora
maris, cum suos mortuos ad illa pertinente”*

Eta, azkenik, 1093an, Almikako inguruak izan daitezkeenak aipatzen dira hango eli-
zaren dohaintza egitean Donemiliagako monasterioari:

*“unum monasterium nomine Albonica (...) circa ora maris (...) cum terris, ortis
et pomiferis arboribus, montibus et pascuis omnibus antiquo usu determinatis,
id est, Urho, Chennaga sursum, Manguiar et Bolinia sursum, Bagalgo, erreka
apud Albonica, Dorrondua iuso, Narniz, erreka sursum, Barrungia intus, mo-
lendinis cum aquarum productilibus patefactis, sautis cum glandiferis arbustis
et amenis pratis (...). Et decanias sunt: Uheleku, Munnituz, Bachio et Urdoniz
et Bertandona (...)”*

Agiri monastikoak dira guztiak. Aita Santuek bultzatuta, eliza edota monasterio na-
gusiei, jabetza partikularreko elizak eta beste ondasun batzuk dohaintzeko joera zegoen
garai hartan. Agiri hauetan, Donemiliaga edo San Juan de la Peñari emandako Bizkaia al-
deko zenbait eliza eta lur azaltzen dira: besteak beste, Gaztelugatxe, Bermeo eta Erkoreka
inguruko sailak, Bermeoko portuko San Migel eliza edo Almikakoa.

Bizkaiko kondeak eta beste jaun batzuk agertzen dira dohaintzagile eta ematen di-
tuzten elementuek, nekazaritzari lotutako bizimoduak erakusten dituzte: “Decaniak”
(segur aski granja monastikoak), “terrak” (lur landuak), sagardiak eta bestelako “pomife-
rak”, mendiak (baso zentzuan), “sernak” (lur sailak), ortuak, larreak, “bustus” edo abel-
buru multzoak, errotak.⁶⁶

65 Testuak eta fitxa toponimikoetan ipinitako leku-izenen formak ondokoetatik hartu dira:

Irigoyen, Alfonso (1985); 12, 13, 17

Libano, Angeles (1995-1999)

Caro Baroja, Julio (1981); 269-270

Labayru, Estanislao Jaime de (1895-1903); t.II-lib-1º; 98

Balparda, Gregorio (1924); 2. lib.; 18-22

66 Caro Baroja, Julio (1981)

Oso ilunak dira 1093ko agirian azaltzen diren leku-izenak. Nahiko argi dauden *Albonica* eta *Bachio* alde batera utzita, *Manguiar* edo *Mangibar*, bai A. Irigoien⁶⁷ eta bai J. Caro⁶⁸, Mañurekin lotuta dagoelakoan daude. *Narniz*, *Nardiz* izan daiteke, *Barrungia*, Artika auzoan XVI. eta XVII. mendeetan izan zen Barruti errota eta burdinola.


Ez da ezagutzen Bermeo aipatzen duen XII. mendeko agiririk. Hurrengo mendera arte egin behar da bere berri izateko.

XIII. mendearen lehen zatian sortu zuen Lope Diaz Harokoak Bermeoko hiribildua. Ez dakigu zehatz zein urtetan izan zen fundazioa, baina seguruenik 1234 eta 1239 bitartean izango zen; alde batetik, Bermeoko fundazio agiria gaztelania hutsean idatzita dagoen bitartean, latinez eta gaztelaniaz idatzitako Balmasedako foruaren berrespena 1234koa delako eta, bestetik, 1236 edo 1239an hil zelako Lope Diaz Harokoa.

Jaunak Logroñoko araudiaz hornitu zuen hiribildua eta mugak ipini zizkion:

“Et estos terminos han estos pobladores de Bermejo por nombres de Villa. De Menigo, et de Morteruza et de Vriachiti fasta Bermejo con montes et con fontes, et con entradas, et exidas (...)”.⁶⁹

Hiriaren inguru laburrari dagokion hedadura besterik ez da. *Menigo*, gaurko Demiku da; *Morteruza*, San Migel auzoko Azeretxo eta Beasko baserriak dauden para-jeari dagokio; eta, *Uriachiti*, azkenik, Arane baserriaren ekialdean zabaltzen den lautadaxoa da.⁷⁰




Fundazio garaiko mugak.

67 Irigoien, Alfonso (1985); 91

68 Caro Baroja, Julio (1981); 292

69 Iturriza, J. R. (1793); II; 208

70 Leku-izen hauei buruz, ik. dagozkien fitxak.



1285eko berrespeneko mugen zabalkuntza.

Aurrerantzean, ugariak izan ziren foruaren berrespenak eta hiribilduak jaso zituen pribilegioak. Besteak beste, Bermeoko hiritarrek, Sevillan, Toledon eta Murtzian izan ezik portazgorik ez ordaintzekoa (1277); Galizian eta Asturiaseko portuetan arraina gatzatu ahal izatekoa (1282); Gasteizen eta Urduñan portazgorik ez ordaintzekoa (1289); Bermeokoak zorreatatik edo fidantzetatik atxilotuak ez izatekoa (1296); merkatu librea ospatzekoa (1301); apelazioz izan ezean, Bermeoko epailearen aurrean bakarrik epaituak izatekoa, (1334), etab.⁷¹ Zalantzarik gabe, hau guztia, Bermeok garai hartan merkataritza alorrean izan zuen ospearen seinale da.

Laster hasi ziren hiribilduaren eskumenero lurraldearen zabalkuntzak:

1285ean, Lope Diaz Harokoak Bermeori forua berrestean, hiribilduaren eskumenero eremuaren zabalkuntza etorri zen. Oraingoan, honela zehazten dira hiribilduaren jurisdikzioko lurrak:

“Por do taja la agua de Lamiaran adentro, é por el somo de la sierra que es sobre la caseria de los fijos de don Sancho de Galdacano, é por esa senda que recuda por sobre Achonaraen al rio que ba por entre Nafarroa, é Zuloeta, é por ese rio arriba que recuda en destajo al somo de la tierra, é por el cuesto de esa sierra por sobre Morteruza, é por Ordoña que recuda a Burgos [sic], é de Burgoa fasta Bermejo, con montes, é fontes, é con entradas, é exidas (...)”⁷²

Lamiaraneko erreka leku ezaguna da; Santxo Galdakaokoaren semeen baserriaren goitiko gaina, Demiku auzo gainean dagoen Masugoiko edo Katillotxu mendiaren ipa-

71 *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo* (1972); 110-113

72 Iturriza, J. R. (1793), II; 209

rraldeko adarra litzateke. Handik mugak *Artikaerrekara* egiten du, *Atsoarene* ondora eta ostean, gaurko Frantzuerekatik jarraitzen du, hau da, *Nafarrola* eta *Zulueta* bitartean dagoen errekatik. Mugak Laubidietara edo Truboietaganetik egiten du gero, *Goikoganetik* edo *San Migel* auzoaren goitik (*Morteruza gainetik*, hain zuzen) *Burgoraino* heltzeko. Aipatzen den *Ordoñak*, Garbola mendia edo gaurko Zumarrietako landa ingurua izan behar du. Azkenik, *Burgotik Bermeoko* hirira egiten du mugak.

1.300ean, Bermeoren erreferentzia eginez, Bilboko fundazio agirian, *Galdiz* mendia Jaunak bere esku mantentzen duela zehazten da. Berdin gertatzen da 1337ko Gaminizko agirian ere:

*"(...) é do el mio monte de Ollargan que guarda el mio Preboste de Bermeo el monte de Galdiz"*⁷³

*"(...) é do bos el mi monte de Isoquiza en goarda de mi Preboste de este Lugar que les guarde, ansi como goarda el Preboste de Bermeo el monte de Galdiz (...)"*⁷⁴

Hala ere, Iturrizak adierazten duenez, Galdizko mendi hau Bermeok berea zela frogatu zuen 1282an, Jaunaren aurrean, Olabarrietako elizatean.⁷⁵

1.301ean, Tala ematen zaio Bermeori; antza denez, ordura arte, Almikako elizatearena omen zen.⁷⁶

1353an, Don Tello, Bizkaiko Jaunak, Arketa eta Portuondoko portuak, Bermeoren eskumenean jartzen ditu.⁷⁷



1366ko mugen zabalkuntza.

73 Iturriza, J. R. (1793), II; 231

74 Iturriza, J. R. (1793), II; 213

75 Iturriza, J. R. (1793), II; 231

76 Henao, P. Gabriel de; libr1, cap42 (t.2).

77 Yradi, Juan Angel de (1844); 104

1366an, berriro zabaltzen du Jaunak Bermeoren jurisdikzioa:

*“De encima de la Sierra que llaman de Solue do esta amojonado, é dende fasta Iturrieta como ba el arroyo de parte de Hemerando fasta la puente de Gabancho como ba el rio por la Rueda Vieja, é dende como ba é taja el rio fasta la mar; et de como ba a la mar de la entrada de dicho rio de Bakio fasta en Bermejo; é del dicho Lugar de Solue de la otra parte fasta en Esquiaga por do parte el termino de Mundaca fasta la mar; (...)”*⁷⁸

Oraingoan, Ezkiaga, Tribiz, Arranotegi, Sollube, Mañu, eta Bakioko errekarainoko lurrak (Zubiaur eta San Pelaio), Bermeoren jurisdikziopean jartzen dira.

XIV. mendearen amaieratik aurrera, Bizkaiko jaunak (tenore hartan, Gaztelako errege ziren, aldi berean), Bermeora hurbiltzen hasten dira Bizkaiko Lege Zaharra eta, bide batez, hiribilduko forua berresteko. Araukoa bihurtu zen Bizkaira etortzean, Larrabetzu, Gernika eta Bermeotik pasatzea foruen juramentua burutzeko. Horrela egin zuten Enrique III.ak 1293an, Enrique IV.ak 1457an, Fernando Katolikoak 1476an eta Alonso Quintanilloak Isabel Katolikoaren izenean 1481ean.

Bizkaiko lurraldeko hiribilduen testuinguruan, Bermeoko hiribilduak nolabaiteko nagusigoa zeukan beste guztien artean. Hirietako auzietan, alkateek emaniko epaiaren aurka altxada-errekurtsua egitean, Bermeoko alkatearengana jotzea agintzen zen; horrela esaten da Plentziako fundazio-agiriaren osteko beste guztietan.

“ (...) a todo home que bos lo quiera demandar con alzada que pueda tomar la parte que se agraviare para ante los Alcaldes de Bermeo, é dende a fuera ante mi.” (Plentziako fundazio-agiria)⁷⁹

“(...) é establezco é mando que toda alzada que se tomare, ó fuere pedida ante el Alcalde, ó los Alcaldes de Tabira sea seguida ante los Alcaldes de Bermeo, é dende ante mi, ó ante el Señor que a Tabira mandare” (Durangoko fundazio-agiria)⁸⁰

Gernikako Batzar Nagusietan Bermeok lehen botoa eta lehen ezarlekuia zeuzkan, eta antzinako biltzarretan Bermeoko ordezkariak hitz egitean, beste guztiek, burukoa kentzen omen zuten, beren estimazioa adierazteko.⁸¹

Esandako guztiagatik, eta Jaurerriko herri populatuenetarikoa izateagatik, 1476an, “Bizkaiko Buru” izatearen pribilegioa eman zion Fernando Katolikoak. Baina hau, antza, ez zen Bizkaiko Batzar Nagusien gustukoa izan eta pribilegio honen aurka egin zuten. Horrela, 1602an, kendu egin zitzaion titulua, Bizkaiko infantzonazgoaren ohorearen kontra izateagatik.⁸²

Garai honetan, biziki ari ziren bermeotarrak merkataritzan eta arrantzan. Merkatarri bermeotarrak, seguruenik, garraiolari aritu ziren eta Gaztelako artilea edota Gaskoiniako ardoak Flandes eta Ingalaterraraino eramaten zituzten. XIII. mendearen amaieran kantabriar portuen artean sortutako Itsasaldeko Anaiarteko zortzi kidetako bat izan zen Bermeo. Ez zen harreman onik elkarte honen eta Ingalaterraren artean (kontuan izan behar da garai honetan, Lapurdiko portuak Ingalaterrako koroaren ingurukoak zirela) eta kexu eta auzi ugari izan zen Baiona eta Miarritzekoekin. Hala ere, XIV. menderako, dirudienez, lehenago etsai ziren lapurditarren lagun agertzen hasi ziren bizkaitar portuak. 1317an argitu zion Bermeoko udalak Ingalaterrako erregeari Bizkaiko portuek ez zirela kalterik eragin bere menpekoei, eta bizkaitarrak ez zirela espainiarrekin nahastu behar.⁸³

XV. mendearen erdira arte, Gaztela eta Frantziak Ingalaterrarekin izan zuten gerrak markatu zuen euskaldunen Atlantikoko eta Mantxa kanaleko merkataritza. Euskal mer-

78 Iturriza, J. R. (1793), II; 209

79 Iturriza, J. R. (1793), II; 212

80 Iturriza, J. R. (1793), II; 220

81 Iturriza, J. R. (1793), II; 25, Garibay-en, *Compendio Historial*, aipatuaz.

82 Iturriza, J. R. (1793), II; 25

83 Arocena, Ignacio (1964); 14

katariek behin eta berriro lortu zituzten tregoa Ingalaterrarekin, baina pirateria ekintzak ere etengabeak izan ziren. 1369an, Bermeok ingelesekiko harreman komertzialetan ziharduena eta 1372an, Bizkaiko portuak akordioetan zebiltzan bretoiekin, Mantxa kanalerako ibilbidea segurtatzeko. Gerrak jarraitzen zuen bitartean, Bizkaiko bost portuek (Bermeo, Ondarroa, Plentzia, Lekeitio eta Bilbo) akordioa izan zuten Baionarekin. Ordurako, Itsasaldeko Anaiarte desegina zegoen. XIV. mendearen amaieran eta XV.aren hasieran, kantabriar itsasoko marinelen garrantziak gora egin zuten Atlantikoan, batez ere Brujasen. Ardoa, artilea eta euskal burdina ziren merkagai nagusiak.⁸⁴

* * *

XIV. eta XV. mendeetan Euskal Herria osoan izan ziren leinuen edo alderdien arteko borrokaldiak. Alderdi hauek ahaidetasunean oinarritzen ziren; leinu bereko senide izateak solidaritate loturak sortzen zituen eta zenbat eta ahaide gehiago izan leinuak, hainbat eta boteretsuagoa bihurtzen zen. Senitarteko buruzagitza, adar nagusiko “ahaide nagusiak” hartzen zuen; leinuko burua zen.

Sarritan, leinuak beren arerioen aurka botere handiagoz aritzeko, beste leinu batzuekin elkartzen ziren, alderdiak edo bandoak eratuz. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako leinuak Ganboa eta Oñazko alderdietan bananduta egon ziren. Bizkaian, Butroiko ahaide nagusia agertzen zen Oñazko bandoko buru eta Abendañokoa, Ganboako alderdiko nagusi.

Alderdi hauen arteko errietak edo altxamenduak, sarritan, gaur lelokeriatzat hartuko genituzkeen arrazoiengatik sortuak izaten ziren; “bestea baino gehiago” izateagatik, gehienetan.⁸⁵

Lope Garzia Salarzarkoaren esanetan, hasieran bi leinu nagusi zeuden Bermeon, Asuagakoa eta Apiotzakoa, elkarren etsai, norgehiagokako lehiari; Asuagako leinua hiru adarretan banandu omen zen: Ermenduruakoa, Areiltzakoa eta Aroztegiakoa. Gerora, lau leinuak akorduan jarririk elkarren artean banandu ei zuten herria.⁸⁶

84 Arocena, Ignacio (1964); 22 eta hurr.

85 Caro Baroja, Julio (1956)

86 Euskal Herria osoan bezala, Bermeon ere, izan zen ahaide nagusien arteko borrokarik. Hona hemen garai hartako zenbait gertaera. Ik. Garcia de Salazar, Lope; 191-192; 198-199; 211-212; 217; 223-225:

1414an, Mungian, gerrarako eraikuntza bat zela eta, Butroiko eta Abendaño nagusiak errietan ari zirelarik, menietan sartu ziren, Ahaide Nagusi bi hauek Mungia hurbiltzeko baldintzapean. Tenore hartan, Juan Abendañokoa, lauogei gizonekin, Gernika, Arteaga eta Bermeon sartu zen. Bermeon zegoela, Juan Santxez Billelakoak, Abendaño eta Butroikoaren artean liskarra sortzeko asmoz, Abendañoari deitu omen zion Mungia hurbil zedin neska bat emango ziola aginduta. Abendañoak hala egin zuenean, Butroikoak iraintzat hartu eta Mungia abiatu zen hau ere, borroka berri bati hasiera emateko.

1427an, istiluak izan ziren Bermeon Fortun Santxez Olabarrietakoaren eta Juan Ortiz Arreskurenagakoaren artean, biak leinu bereko ahaideak izanik. Arreskurenagakoak Butroikoei eskatu zien laguntza; Olabarrietakoak Arteagakoiei. Laster heldu zen Bermeora Juan Martinez de Burgos, Bizkaiko korrejidorea eta “beraien artean zebilela” buruan zauritu zuten Arreskurenagako dorretik. Atxiloketak izan ziren, baina Juan Ortiz Bermeotik ihes eginda zegoen ordurako; Butroira joana zen laguntza eske. Butroiko nagusia Bermeora iristean, hiria itxita eta Arteagakoek hartuta aurkitu zuten. Juan Ortiz Arreskurenagakoa auzitan jarri zen korrejidorearekin. Korrejidorea eta Butroiko nagusia, beste batzuekin, Arbilduako biltzar nagusian zeudelarik, Juan Ortiz heldu zen hogeitabost gizonekin eta korrejidoreari hitz gogorak bota zizkion eta batzarra nahastu zuen. Orduan, Juan Ortizen morroi batek gezi batez erahil zuen korrejidorea. Errieta erdian, Butroiko nagusiaren sasikoa, Otxoa Butroikoa hila suertatu zen. Juan Ortiz, atxilotuta, Gortera eraman zuten eta lepamoztua izan zen.

1446an, Pedro Abendañokoa eta Martiz Ruiz Arteagakoa euren ahaide guztiekin sartu ziren Bermeon; hemen, Aroztegiakoa zituzten lagun. Eta Ermendurua, Apiotza eta Areiltzakoaren aurka borrokatu ziren; hauek Butroikoa zuten kidetzat. Bi eguneko borrokaldiaren ondoren, hiria menderatzea lortu zuten. Handik hiru egunera, Gomez Gonzalez, Butroiko nagusia, bere ahaide guztiekin agertu zen Bermeon, eta zelan portale batetik sartu hau, hala irten ziren Abendañoak eta Arteagakoak Santa Eufemiako portaletik. Hain presaka atera ziren hauek, non eurretako batzuk itsasoan hil ziren itota. Butroikoak atxiloketak egin eta zenbait dorre suntsitu zituen: Rui Santxez Mundakakoarena, Busturiko Sagarminagakoa eta Martin Ruiz Enparekoarena. Abendaño eta Arteagakoek, era berean, Gernika hartu zutenean, Butroikoak hiri honetan zeukan etxea suntsitu zuten.

1460an, Arostegiokoei harresi gainetik, Butroiko ahaide nagusiaren sasikoa zen Otxotetxea hil zuten gezi batez. Erasoan, zaurituak izan ziren, honen anaia Juan Gonzalez eta beste batzuk ere.

1468an, Pedro Abendañoak deituta, Diego Gomez Sarmiento kondea bere soldatapeko zaldunekin, Otxandiotik Durangora abiatu zen eta kalte handiak eragin zituen Zaldibarren, erreketak eta lapurretak burutuz. Berdin egin zuten Gernikaldean, Bermeoko errebaleraino iritsiz.

* * *

Leinuen arteko borroka hauek, jatorriz, Bizkaiko Lur Zabalean zeukaten eragin zuena, baina laster hasi ziren hiribilduak menderatu nahian ere. Istimu handiak sortzen ziren Batzar Nagusietan eta, egoera hartan, Bizkaiko Jaunen boterea zen Ahaide Nagusiei aurre egiteko gai agertzen zen bakarria. Hiriak bortxakerietatik askatzeko, hauek Lur Zabaletik aldentzea erabaki zuten. Ondorioz, Bizkaiko hiribilduak ez ziren Bizkaiko Batzar Nagusietara bilduko, horrela, Lur Zabalekiko zituzten loturak deuseztatuta geratu ziren.

1487ko ekainaren 12an, Bilbon burututako hiribilduen batzarrean, *Chinchillaren Ordenamendua* deitutakoa ezarri zen. Bere arauak hiribilduetako gobernamentua ukitu zuten modu zuzenean eta, zeharka, baita Jaurrerikoa ere. Kontzejuen jurisdikzioari mugak jarri zitzaizkion eta Korrejidoreak hirietan zituen ahalmenak zehaztu ziren. Hiribilduei debekatu egin zitzaizen Lur Zabaleko batzarretara joatea eta beraien arteko bileretara deitzeko ekimena Korrejidorearen esku geratu zen. Pase forala bera erabiltzea ere, debekatua geratu zen. Bizkaiko Foruaren aurkakoa zela eta, laster azaldu ziren *Ordenamenduaren* aurkako kexuak.

Ondorioz, Lur Zabala geratu zen Jaurreriaren ordezkari gisa, eta hiribilduak, bitartean, talde legez ordezkaturko zituzkeen inolako erakunderik gabe gelditu ziren. Korrejidoreak zatekeen autoritate komun bakarria.⁸⁷

Chinchillaren Ordenamenduak bandoen arteko borrokekin amaitzen lagundu zuen.

1504ko abenduaren 13an, ikaragarritzko sutea jasan zuen Bermeoko hiriak. Aurre-rago ere, 1297an, 1347an, 1360an eta 1422an sualdiak izan ziren, baina 1504koa orokorra izan zen. Ia herri guztia erre zen; harresiz kanpoko errebala bakarrik geratu zen hondatu gabe. Santa Eufemia eta, batez ere, Talako Andra Maria elizaren mendebaleko aldea zeharo suntsitu zen, eraikuntza eder haren hondamenari hasiera emanez; hiribilduko dorretxeetatik, Ertzillakoa geratu zen zutik eta udaleko artxiboa ere erabat errautsi zen.⁸⁸

Sute honek Bermeoko populazioaren beharakada eragin zuen. 1480an, 500 fogera zituen bitartean, 1514an, 430 fogeratarra jaitzi zen.

Baina Bermeoren gainbeheraldia lehenagotik hasia zegoen. Bilbok XIV. eta XV. mendeetatik aurrera izan zuen gorakadarekin lotu behar da krisialdi hau. Bilbo, oso ondo kokatua zegoen, Ibaizabal-Nerbion ibaien bilgunetik hurbil eta Gasteiz, Orduña eta Balmasedako bideen gurutzan; burdin meatzetatik ere gertu. Bilbok hartu zuen Bizkaiko itsas merkataritza osoa, untzigintza eta merkatu nagusiak. Bertan bideratu zen Gaztelako artilearen komertzioa Ipar-Europarekin eta Bilbotik hasi zen sartzten Europako merkaderia.⁸⁹

Hau guztia gutxi bazen, oso gastu handiei aurre egin beharrean aurkitu zen Bermeo XVI. mendean: inguruko elizateekin izan zituen jurisdikzio auziak zama handia izan ziren hiribilduaren ekonomiarentzat.

Ondo ezagutzen ez diren arrazoiengatik, zenbait hiribilduen kasuan, zaila gertatzen zen beren eskumeneko eremuak finkatzea eta sendotzea. Fundazio garaian edota zabal-kuntzetan emandako lurraldearen barruan elizateak agertu ziren (beharbada, lehenagotik egon zirenak) eta Lur Zabaleko entitate hauek euren agintari eta lege propioak zituzten⁹⁰. Bermeoren kasuan, jurisdikzioaren zabalkuntzekin, Almika eta San Pelaio elizateetako eremuak hiribilduaren eskumenean geratu zirenean, Bermeoko agintaritzak topo egin zuen baserrietako hidalgoek aurretik zituzten eskubideekin. Ondorioz, Bizkaiko Lur Zabalean eta hiribilduaren arteko borroka hasi zen. Bermeo, bere hiri-agirian oinarrituko da bere eskumeneko eremua errebindikatzeko eta elizateak, euren antzinako ohituretan. Eztabaidak lur-eremuei eta hidalgiari buruzkoak ziren eta ea hiribilduetako legedia aplikatu zitekeenentz hiriko eskumeneko inguru batzuetan. Istimu hauek ez ziren Bermeon bakarrik izan, baita

87 Monreal Cia, Gregorio (1974); 92-96

88 *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo* (1972); 114-115

89 *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo* (1972); 114

90 Monreal Cia, Gregorio (1974); 84

Gernikan, Markinan, Bilbon, Lekeition edo Portugaleten ere⁹¹. Zalantzarik gabe, *Chin-chillaren Ordenamenduaren* ondorioek zer ikusia izango zuten prozesu honetan.

1.500. urtean jadanik, San Pelaioko Azeretxo baserriko jabeak errota bat eraikitzean bere lurretan, zalantzan jartzen da Bermeoko alkatearen aginpidea inguru hartan⁹². Baina eztabaida gogorrenak 1558an hasi ziren: San Juan Hermetxiokoaren hilotza aurkitzean Almika inguruan eta Bermeoko alkateak jurisdikzio ekintzak burutu zituenean, berehala protestatu zuten Jaurerriak eta elizateek⁹³. 1562ko epaia Bermeoren kontrakoa izan zen eta hiriak apelazioa egin zuelarik, errugabe geratu zen 1568an⁹⁴.

Berriro altxatu ziren elizateak Hernan Sanchez exekutorearen mugarriztearen aurka, eurak ere auzian parte izanik, ez zirela deituak izan eta⁹⁵.

91 Monreal Cia, Gregorio (1974); 83-84

92 Korrejidorearen aurreko auzian, zera planteatzen zaie lekukoiei:

"Primeramente sean preguntados por el conocimiento de las partes y tienen conocimiento de la cassa e caseria de Açerecho que esta sita en el balle de Baquio tierra llana de este Señorío de Vizcaya = y del molino que el dho Juan de Açerecho començo a hedificar en su propia heredad y de los montyes e terminos de Ureta = y de los hielsus e mojonos que estan en Harmuquigana e Cucucha y Arballo que estan por donde se dibiden y se parten los montes de entre los vezinos de Guibelorçaga y la dha villa de Bermeo = (...) La justicia y regimiento de la dha villa de Bermeo no ha tenido ni tiene en ningun tiempo del mundo jurisdiccion (...) mas en fee en todas las ocasiones que se ayan (...) y se exerçen en la dha cassa y caseria de Acerecho en lo çebil e criminal an conosido y conocen los corregi(dores) y tenientes generales de este Señorío y los fieles (de la) anteiglesia de Santa Maria de Basigo=

Yten si saben que los dhos mojonos e hielsus que estan en los dhos montes y terminos de Harmoquigana e Cucucha y Arballo: en la proxima pregunta mencionados y contenidos dibiden e parten los montes de entre la dha villa de Bermeo y los dhos vezinos de Guibelorçaga = es a saber la dha villa hazia la parte de arriba y banda de la dha villa = y los dhos bezinos de Guibelorçaga dende los dhos mojonos hasta abaxo fasta llegar a los montes e terminos e mojonos pertenecientes de la dha casa y caseria de Açerecho y como tales montes y terminos suyos propios los dhos vezinos an gozado e gozan dende el dho tiempo inmemorial a esta parte sin que aya tenido ni tenga parte ni derecho alguno la dha villa de Bermeo." (BFA. K. 2042/7)

Guibelorçaga, San Pelaio auzoaren antzinako izena da, eta Arballo, Cucucha eta Harmoquigana San Pelaio auzoa inguratzen duten mendiak dira.

93 Haultzat, inguru hartako eskumena ez zegokion Bermeoko alkateari:

"(el) sindico procurador Xeneral del dho Señorío (...) se querello y acuso criminalmente de Sancho Martinez de Apiozia alcalde hordinario de la dha villa de Bermeo diciendo que abiendo sido allado muerto San Juan de Hermechio en el camino real que pasava desde la iglesia de Alboniga hacia Bilbao y las Artigas y otras partes el dho alcalde siendo el dho camino real de la jurisdiccion e ynfanzonazgo de la Tierra Llana del dho Señorío y del Corregidor y su Teniente Xeneral y executores, el dho alcalde faborescido de otras personas de la dha villa en quebrantamiento de la jurisdiccion de la Tierra Llana del dho Señorío haciendo de juez privado Havia hido al dho camino real con bara alta de justicia en las manos y aviamos dado al camino real Y llebar el cuerpo del dho Sant Juan de Hermechio y avia echo otros autos de jurisdiccion" (VEKA. R.R. Ejec. C2497).

94 1574an mugarriketa egitea agindu zen. Hernan Sanchez izan zen exekutatuzailea.

" (...) declaro ser termino y jurisdiccion de la dha villa de Bermeo todo lo que se incluye desde Yturrietagana asta llegar a los Tres Arroyos de Emerando y desde alli a la puente de Oxaurta y desde alli a la puente de Gavancho y desde alli asta Baquio por donde corta el arroyo que va de Yturrieta asta la mar y por la otra parte desde la dha Yturrieta Gana asta Esquiaga y desde alli (...) Lamarin por donde corta la puente y el arroyo que ba por Lamarin abaxo dentro de los quales dhos terminos sencluye el camino dende se allo muerto San Juan dermichio ques cerca de la yglesia de Alboniga y por los quales dhos limites y senales mando sean puesto moxonos altos y conocidos que amoxonen y señalen los dhos terminos (...)" (VEKA. R.R. Ejec. C2497).

95 1575ean, elizateek, beraien mugarriketa proposatu zuten:

Mundakak:

"porque la moxonera antigua que avia siempre dividido los terminos y jurisdiccion dentre la dhas anteiglesias sus partes y la dha villa de Bermeo avian sido desde el arroyo de Lamarin por vaxo de la casa Deminigo asta la puente de Aportategui y desde alli asta el moxon alto de piedra questava la calcada devaxo de la iglesia de Alboniga y desde el dho moxon asta la casa de Juan de Alboniga y Pedro de Ynchurza inclusive y por zima de las dhas casas asta el arroyo que deciende y baxa de Aquilotequi y por devaxo de las casas de Azoeta y dende al moxon grande de piedra questava entre los dhos rios de Aquilotequi y Arronotegui y de alli por los moxonos altos de piedra con sus tsº y cruces (...) questavan asta cima de Pago y Culiaga donde se dividian la jurisdiccion de las dhas anteiglesias y la dha villa de Bermeo"

Bakiok:

"Y ansimismo en nombre de la dha anteiglesia de Basigo presento otro scripto en que entre otras cosas dixo que el dho juez juez mayor allaria que la moxonera antigua que siempre avia avido y devidido y devidia los dhos terminos y jurisdiccion de la dha anteiglesia con la villa de Bermeo (...) desde el moxon de piedra questava en Grosio y desde alli asta el moxon de Xareacondo (...) y de alli al moxon de Andrinieta y desde alli al moxon de junto a Munguagorta y desde alli al moxon de Uzalarreta donde se acava la dha moxonera hacia la de la dha anteiglesia"

Elizateen esanei men eginez, 1577an, Jeronimo de Espinosak, Valladolideko Kantzilergoko Bizkaiko epaile nagusiak, atzera bota eta balio gabe utzi zuen Hernan Sanchezek egindakoa eta elizateek markatutako mugarritze “zaharra” jartzeko agindua eman zuen⁹⁶.

Meñiakak eta Mesteriakak:

“notorio exceso en la moxonera que avia echo porque avia puestomuy mas dentro de los terminos propios de sus partes y en su jurisdiccion porque deviendo de poner los primeros moxones en Iturrietagana y desde alli a los Tres Arroyos que ban a Jaurta puso los dhos moxones en Iturrietagana y en otras partes en que avia tomado y ocupado de los terminos montes y jurisdiccion de los dhos sus partes mas de una legua”. (VEKA. R.R. Ejec. C2497).

- 96 *“fallo atento los autos y meritos deste processo y decio de revocar y revoco y doy por ninguna y ningun valor y efeto todo lo en este echo y quitado procedido y executado por Hernan Sanchez juez executor de su magestad y la monjonera que hizo en los terminos de la dha villa de Bermeo de que por parte de las dhas anteiglesias de Mundaca y Axpe de Busturia y consortes fue apelado y aciendo justicia mando que a los fieles de las dhas anteiglesias de Mundaca y consortes sean bueltos y restituidos los terminos y montes que les fueron tomados y executados”.*

Agindua jarraituta, 1578an, Manuel Sanpayo exekutoreak mugarritze berria burutu zuen:

“Ldo. Manuel de Sanpayo teniente xeneral que fue del dho nro. señorío de Vizcaya el qual citadas las partes y tenidas ciertas ynformaciones demolio y quito la moxonera hecha y puesta por Hernan Sanchez nro. executor de la primera carta executoria ganada por el gobierno justicia y reximiento de la dha villa de Bermeo contra el señorío de Vizcaya e hico puso y renovo el dho Licenciado Manuel de Sanpayo otra moxonera y puso el primer moxon en la calzada y camino real que es en el arroyo de Lamíaran nombrado en la executoria en que puso un monxon alto de piedra con sus letras esculpidas que dizen monxon de Vizcaya y Mundaca con Bermeo con una cruz alta de piedra y sus tº de piedra y unas letras en algarismo donde dize 1578 para distincion de los terminos y jurisdiccion dentre las dhas partes con la dha villa de Bermeo. = Y ansimismo el segundo monxon se puso devaxo de la casa de Demeñigo donde los tos. examinados mostraron ser el sitio que hace la division y qdo. la executoria (...). Y el terzero monxon puso en un xaral y bardal que los tos. declararon ser la heredad de Martin Abad de Arana (...). Y el quarto monxon puso cont. a la declaracion de los tos. en una heredad que esta frente a las casas de Carraan yendo para la puente de Aportategui entre dos cagigos y al pie de un madroño quedando las casas de Carraan a la parte de la anteiglesia de Mundaca Y ansimismo puso el quinto monxon en el arroyo que esta al pie de las casas de Carraan (...) Y el sexto monxon puso en un castañal de Gracia Ybañez de Zallo donde los tos. declararon ser sitio p. distincion de los dhos terminos para la puente de Aportategui = Y el setimo puso en (...) del mismo castañal de Gracia Ybañez de Zallo que los tos. mostraron ser para la dha dist. y la puso al pie de un castaño con cruz como los demas = Y el otavo monxon puso en la campa y castañal de Arechuetta (...) = Y el noveno monxon puso en la puente de Aportategui que los tos. mostraron ser sitio de la dha distincion que la dha villa y las ontras anteiglesias y desde el dho monxon de la dha puente de Aportategui se fue a la calcada de avaxo de la yglesia de Albonigaa donde se dize que estava un monxon alto de piedra cerca de las casas de Ybarrieta y le bisito y declararon los tos. ser monxon de la dha distincion del qdos. la carta executoria al qual mdo. (...) y hacer una cruz con cincel a la parte de la casa de Ibarrieta (...) y quedo la casa de Alboniga ynclusa en la jurisdiccion y terminos de las anteiglesias = y de aquí se fue a la casa de Pedro de Chingurca que declararon los tos. ser la qda. la executoria y de ella y de la casa de Alboniga y de sus pertenecidos dió (...) a la parte de las dhas anteiglesias y de allí se fue al camino que mostraron al executor por encima de las casas de Alboniga y Chingurza por someros de unos castañales asta que llego al arroyo y deciende y baxa de Aquillotegui por debaxo de las casas de Pedro de Culoeta y dende a un monxon grande de piedra questa entre los dos rios que llaman de Aquillotegui y Arranotegui que los dhos tos. declararon ser el qdo. en la executoria y ser sitio y monxon que dibide los dhos terminos y jurisdiccion = Y deste monxon se fue a otros questa yendo del dho monxon de Aquillotegui al monxon de Fagoculuaga y le visito y mando poner un tº por la parte de Arranotegui y se le hico una cruz Y deste monxon se fue a otro que los tos. mostraron que estava a un trecho del pasado y dixeron ser uno de los declarados en la executoria y estava al pie de un arbol con una cruz antigua echa de zíncl Y sucesivamente fue prosequ. por otros ne. monxones al sitio de Fago i Çuluaga Mando poner un monxon grande de piedra con sus tºs. en un cerro y argomal grande llamado el argomal de Mendiola questa entre el ultimo monxon y del dho monxon de Fagoculiaga = Del qual monxon se fue a otro questa cerca del dho monxon de Fagoculiaga donde se allo un monxon de piedra con su tº. y (...) mando poner junto a el otro monxon grande de piedra con sus tºs. y dos cruces Y deste monxon se fue a otro que le mostraron junto a una aya y de una pillada grande de piedra y declararon ser el monxon de Fagoculiaga declarado en dha executoria donde se acabava la moxonera que divide terminos y jurisdiccion dentre la dha villa de Bermeo y las quatro anteiglesias de Mundaca San Andres de Pedernales Axpe de Busturia Murueta y según la declaracion de los tºs. y le bisito y para que fuese mas conocido mando poner y puso junto del un monxon grande de piedra con dos cruces Y por ser este sitio camino pasajero mando poner en el una cruz de madera Y ansimismo (...) acabada la dha moxonera de las dhas quatro anteiglesias empezando la moxonera de la anteiglesia de Arrieta se fue el dho Ldo. Sanpayo a donde dicen Ostraydua junto a un monxon de piedra questa entre Fagoculuaga y la fuente de Yturrieta y los tºs. examinados (...) mostraron por moxon antiguo el dho monxon de Ostraydua y (...) mando poner y puso junto a el otro monxon grande de piedra con sus cruces y deste monxon fueron al camino dº. para la fuente de Yturrieta y en medio del dho camino señalaron los tºs. un sitio entre el moxon de Ostraydua y la dha fuente de Yturrieta y por aver grande trecho a la dha fuente se puso en el dho sitio un monxon con sus tºs. cruces de donde fueron a la misma fuente y ansimismo parece que acabada la dha moxonera de Arrieta el dho Licenciado Sanpayo comenco la moxonera de Menaca y Mesterica y aviendo llegado a la dha fuente de Yturrieta que los tºs. exsaminados cerca della mostraron y declararon ser la contenida en la executoria y que

Epai honekin, Artika, Almika eta Demiku, Bermeoren eskumenetik kanpo geratu ziren. Era berean, Arketa eta Portuondo ere⁹⁷. Ondarreko errota, hiri ondoan, Adoberiako auzunean egonik ere, elizateen eremukoa geratu zen. Berrogei eta hamaika urtetan, honela geratu ziren gauzak.

XVII. mendean, Bermeoren apelazioek fruitua emango dute: 1628ko auzian berriro itzultzen zaizkio hiriari 1366ko zabalkuntzan emandako eremuak⁹⁸.

ha servido de distincion de los terminos y jurisdiccion entre Meñaca y Mesterica y de la villa de Bermeo junto della mando poner y pusso un monjon grande de piedra con dos cruces y dos testigos y de la dha fuente que el executor con los dhos testigos para los tres arroyos de la parte de Emerando y en el arroyo que sale della pusso un monjon mas adelante le mostraron un mojon alto de piedra antigua que se allo con dos testigos y porque fuese mas conocido hico poner junto a el otro monjon alto de piedra con dos cruces y por aver grande trecho desde alli asta los tres arroyos puso otro monjon grande en el mismo arroyo junto unos abellanos con sus testigos y cruces y mas adelante se pusso otro monjon junto a dos caxigos antes de llegar al sitio donde se juntan los tres arroyos de Emerando y aviendo llegado a los tres arroyos de la parte de Emerando (...) y el dho executor puso en el dho sitio un moxon alto de piedra con dos t^{os}. y dos cruces junto a un caxigo y ansimismo acavada la dha monjonera de Meñaca y Mesterica el dho executor comenco la monxonera de Baquiu y se fue a un sitio do dicen Andiribietta que los t^{os}. esaminados cerca de la moxonera que divide los terminos y jurisdiccion dentre la anteiglesia de Vaquiu y la v^a de Bermeo y mostraron ser sitio que hacia la dha division. Donde se allo un moxon que declararon los dhos t^{os}. ser uno de los antiguos qdos. en la executoria y mando poner el dho ntro. juez executor junto a el otro moxon grande de piedra con dos ts. y dos cruces y del dho moxon se fue a otro sitio do dicen Munguiagorta donde avia otro monxon de piedra con un t^o y le puso otro t^o y se le hicieron dos cruces quedando dentro de la dha moxonera y en el los terminos de Vaquiu la torre de Goicolea la casa de Garategui y la casa de Cubiaur las casas de Ugarte y otras y del dho moxon se fue al sitio do dicen Xaralondo donde se allo otro monxon de piedra que declararon ser de los que devidian los dhos terminos y jurisdiccion y para que fuese mas conocido se puso otro moxon junto del con cruces y t^{os}. y el dho moxon de Xalondo se fue al sitio donde dician Gorosoa donde se allo otro moxon y le visito el dho ntro. juez executor y puso otro junto a el (...) y ansimismo desde el dho moxon de Gorosoa el dho ntro. juez executor se fue a do dicen Uceyayeta donde se allo otro moxon que declararon los t^{os}. ser el qdo. en la dha carta executoria y le visito el dho ntro. juez executor”

Ondorioz, hurrengo etxe, errota eta burdinolak, elizateen eskumenean geratu ziren:

“Con lo qual se acavo la dha moxonera y se les dio a la parte de las dhas anteiglesias la posesion de los molinos y herrerias y casas que sncluyen en ella en los terminos de las dhas anteiglesias con sus pertenecidos en parte se comprehende el molino de Ondarra el molino de Alboniga y el molino de Cialaya el molino de Ulairrota el molino de Elotacarra el molino de Errotavarria el molino de Teloerrota de vaxo el molino de Mucalaria el molino de Rotamodorra el molino de Olaerrota el molino de Acaerrota el molino de Rotaesquerra el molino de Azque el molino de Cubierota el molino de Barruti el molino de Nafarrola Y ansimismo se le dio la posesion por el dho ntro. juez executor a las dhas anteiglesias de la casa de Ugarte la casa de Puxua la casa y torre de Ugarte la casa de Juan de Lopetegui la casa de Celaya la casa de Aparicio de Artiga la casa de Yravian la casa y torre de maese Melso de Ugarte la casa de Achoaren la casa de Asulta la casa de Varrutia la casa de Hernando de Nafarrola la casa de Nafarrola de medio la casa de Juan de Nafarrola la casa de Tribis la casa de Urquisaria la casa dEsquiaga la casa del Montemayor la casa de Amparan la casa de Garalde la casa de Yragorrieta la casa de Alboniga la casa de Ugarte del soldado la casa de Uriarte y de Juan de Menigo y de la casa de M^a Ochoa Demenigo y la casa de Hortuño Demenigo la casa de Puerto de Pedro Demenigo la casa de Sancho de Echavarria la casa de Fradua la casa de Cabala Demenigo la casa de Carraan de Martin de Muxica la casa de Carraan de Grazia de Zallo” (VEKA. R.R. Ejec. C2497).

97 Yradi, Juan Angel de (1844): 105

98 Hona hemen, Diego Rodriguez Baltodano exekutoreak 1629an burututako mugarriketa. Testuan ageri denez, argitasun gehiago emateko, azaldutako lekuak adierazten zituen mapa bat ere egin zen:

“Primeramente mando que se ponga el primer mojon en la sierra de Solube en lo mas alto y superior de ella que haze vertientes de la una parte Arrieta Murubeta y Axpe de Busturia y de la otra a la dha villa de Bermeo y sus (...) declarando ser verdadero Solube las tres cumbres mas altas que estan en la dha sierra y en la que esta en medio enzima de la puente de Yturrieta se a de poner el dho primer mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra alfabetica =A= del cual mojon primero se baja bajando asta la puente que las dhas anteiglesias llamanla Yturrieta a cordel derecho donde mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra alfabetica =B=; y dende el dho mojon segundo de la puente de Yturrieta y su mojon se baja bajando derechamente por el agua y arroyo abajo que de ella sale asta dar a el rio de Ojagorta en el dho sitio donde se juntan con el otros dos arroyos y alli donde se juntan todos tres se ponga otro mojon que es el que esta en la mapa y pintura señalado con la letra =C= y desde el dho tercer mojon proseguendo el dho rio de Ojagorta abajo se baja asta la puente que llaman de Ojagorta donde junto a ella mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra =D= y desde el dho quarto mojon proseguendo el dho rio abajo de Ojagorta se baja asta la puente que antiguamente se llamava de Gabancho y agora se llama la puente de Estapona que esta y viene a estar frontero de la casa que llaman de Gabancho y junto de la dha puente y frontero de la dha casa se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra =E= y de dho mojon que es el quinto se baja proseguendo por el dho rio abajo por el corriente de el asta dar en la mar y al fin de dho rio donde entra la mar se ponga otro mojon que es el que esta en la mapa y pintura señalado con la letra =F= (...) Y puesto la dha monjonera en la manera dha mando el Señor Juez Executor que se buelba al

Exekutoria honekin amaitu ziren, antza, Bermeoko hiriaren eta inguruko elizateen arteko jurisdikziozko auziak. Bizkaiko beste lurraldeetan ere baretu egin ziren hiribilduen eta ondoko elizateen artean izandako iskanbilak; Zalantzarik gabe, 1630eko Konkordia delakoaren inguruan kokatu behar da konponketa hau⁹⁹. Beraren bitartez sortu zen Bizkaiko erakunde-egitura bateratua, hiribilduen eta elizateen estatusak berdindu baitzituen Jaurreriko Batzar Nagusietan eta Erreximenduan, *Chinchillaren Ordenamenduak* ezarritako bikoiztasuna hautsiz.

Ba dago 1578ko Sanpayoren eta 1629ko Rodriguez Baltodanoren mugarritzeak zehazki markatzen dituen 1749an egindako mapa bat.¹⁰⁰

Hauek arazo guzti hauek jasan arren, Bermeok nolabaiteko ospea mantendu zuen: lehenago 1512an eta gero, 1527an, XIV. mendeko Arrantzaleen Kofradiako ordenantzen berrespena eman zuten Juana erreginak eta bere seme Carlos enperadoreak. 1546an, enperadore honek Bermeoko pribilegioak ere berretsiztat eman zituen. Esan behar da ere, Bermeok XVI. mende osoan mantendu zuela “Bizkaiko buru” izatearen ohorea.

mismo sitio de Solube donde mando poner el dho primer mojon y de la dha cumbre de medio se baja por la dha cumbre a dar a la otra cumbre asta la cavezera del ayal que llaman de Ostraidua a donde mando se ponga en la dha cavezera otro mojon que es el que esta señalado con la letra =G= y del dho mojon de la dha cavezera del ayal de Ostraidua baja la mojonera a cordel derecho asta el termino de Esquiaga por do parte termino con Mundaca y el dho sitio por do parte el dho termino que declaro ser en la sierra enzima de los pertenezidos de Monte Mayor mando se ponga otro mojon que es el que se señala en la mapa y pintura con esta letra =H= y desde el dho mojon de la sierra debajo de Esquiaga y enzima de los pertenezidos de Monte Mayor se baja a cordel derecho asta dar en el arroyo que baja de Arronategui entremedio de las casas de Nafarrola y Zulueta y entre las dhas casas se ponga otro mojon que es el que se señala en la mapa y pintura con esta letra =Y= y de este dho mojon que es el noveno devajo de la casa de Zulueta y de Nafarrola mando se baya el agua y arroyo de Arronategui abajo asta dar en la zenda que viene a dho rio de la casa de Enparan a las casas de Achoaren donde al prinzipio de la dha zenda y junto de las dhas casas de Achoaren mando se ponga otro mojon que es el que se señala en la mapa y pintura con esta letra =J= y para mas claridad de poder entender la mapa y pintura se a de verse que el color colorado que esta fuera de la mojonera asi a las bertientes de Basigo, Arrieta, Murueta, Axpe de Busturia y Pedernales ser la jurisdizion privativa de las dhas zinco anteiglesias suso referidas = y todo el campo que esta de color amarillo ser jurisdizion privativa de la anteiglesia de Mundaca y todo el campo que esta en la dha mapa y pintura de color berde ser jurisdizion privativa de la villa de Bermeo conforme a la dha execucion de la dha Carta Real Egecutoria = y ademas se advierte para convezimiento total de las partes contrarias y su intento que los dos mojonos de Esquiaga señalado con la letra H y el mojon de Zulueta señalado con la letra Y y el cordel que esta tirado de mojon a mojon en la dha pintura y el rio que baja desde el mojon señalado con la letra Y asta el mojon de junto a la casa de Achoaren señalado con la letra J que hazen un triangulo y la lengüeta de tierra que entra en este triangulo donde esta incluso el molino de Tribiz que esta señalado con esta letra =K= es jurisdizion privativa de la anteiglesia de Mundaca con mas los pertenezidos de Monte Mayor; y para mejor conozimiento esta el territorio de la jurisdizion de Mundaca de color amarillo desde el cordel que esta echado desde el mojon de debajo de Esquiaga señalada con esta letra H asta el mojon de entre las casas de Nafarrola y Zulueta que esta señalado con esta letra Y; todo el campo berde que esta desde el cordel azia las casas de Esquiaga, Urquizarri a Tribiz y Nafarrola señaladas en la mapa y pintura con las letras Q, P, S, T, es jurisdizion privativa de la dha villa de Bermeo donde estan inclusos la ferreria mayor y molino de Barrutia que estan señaladas en la dha mapa y pintura, la ferreria mayor con esta letra X y el molino de Barrutia con esta letra Z. (...) Y concluyendo la dha mojonera adelante mando el dho Señor Juez Egecutor que desde el mojon señalado con la letra J que es el que esta junto al arroyo y casa de Achoaren se baja por la dha senda arriba que ba subiendo por enzima de las casas de Emparan asta un cajigo que esta solo en el dho camino y zenda donde llaman la Sierra y junto al dho cajigo y en la dha zenda mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la dha mapa y pintura con la letra =M= y de este dho mojon mando se baya proseguendo la dha zenda asta enzima de la casa de Goytiz y en una peñuela que esta en la dha zenda antes de llegar a la dha casa de Goytiz mando se ponga otro mojon que es el que esta señalado con la letra =N= y desde alli bia rreta o cordel mando se baya al arroyo que la dha villa de Bermeo llama Lamiaran y en el nazimiento de el dho aroyo se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con la letra =O= y del dho mojon y nazimiento del dho arroyo mando se baya por el abajo a la puente de piedra que esta en el dho arroyo de Lamiaran frontero de la hermita de Lamiaran donde asimismo mando que en medio de la dha puente se ponga otro mojon que es el que esta señalado en la mapa y pintura con esta letra =P= y desde el se baya el agoa abaxo en la mar declarando como declaro ser las berdaderas mojoneras para division de los terminos y jurisdizion de entre la dha villa y anteiglesias en la forma que ba declarado y amonajado y todo lo yncluso dentro de ellas asi a la parte de la dha villa de Bermeo ser termino y jurisdizion de la dha villa de Bermeo en posesion y propiedad sin parte alguna del dho Señorío de Vizcaya y anteiglesias en que entran (...)” (BFA. BilUZ. SZ. 315/1/5).

99 Monreal Cia, Gregorio (1974): 99

100 1749. España. Ministerio de Cultura. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid. PLANOS Y DIBUJOS. DESGLOSADOS 0783.

Mende honetan zehar merkataritzan eta arrantzan jardun zuen Bermeok. Oraindik, Bermeok eraikitako lauhun tonatara iristen ziren itsasontzi ospetsuak aipatzen dira, Zubiatur, Bertendona, Rekalde eta Portuondoren itsas armadak hornitzen zituztenak.

* * *

1722ko martxoaren 24an berriro jasan zuen Bermeok sute ikaragarri bat. Eta berriz ere artxiboko agirietako zati handi bat galdu zen. Iturrizaren esanetan, hogeita bat zaku pribilegio eta agiri garrantzitsu errautsi ziren¹⁰¹. Ondorioz, XVI. eta XVII. mendeetako Bermeoko historiak hutsune konponezinak ditu.

XVII. mendean, Bermeok krisian jarraitzen zuen. Demografia aldetik, 1685ean, Bermeok bere historian izan duen populaziorik urriena erakusten du: 183 fogera. Seguruenik, oraindik, 1504an izan zuen sute nagusitik ez da suspertu Bermeo. Mende honetan, bestalde, etengabeak izan ziren Errege Armadarako marinelen erreklutatzeak. Azkenik, Bermeoko komertzioaren geldialdia gertatu zen, Bilboko Kontsulatua eta Kontratazio-egoitza fundatu zirenetik, Bilbori egokitu baitzitzaion Bizkaiko portu merkatarikoa bakarria izatea.¹⁰²

* * *

1688an, herriko ordenantzetan aldaketak izan ziren, batez ere, udaleko karguak hautatzeko atalean. Fundazio-agiriak ez zuen arau nahikorik herriaren antolamendurako eta ordenantzak egin beharra egon zen. Ez da ezagutzen noiz eta zenbat egin ziren. 1504az aurretikoak sute orokorrean erre ziren. 1557an, dirudienez, haien kopia bat egin zen, baina hauek zehatzegiak eta, askotan, alferrikakoak izanik, ez ziren eraginkorregiak. Azkenik, aipatutako 1688ko aldaketen ondoren, 1753an, *Ordenantza* berriak ezarri ziren.¹⁰³

XVIII. mendera arte, kontzeju zabalez eta kontzeju itxiez gobernatu izan zen Bermeo. Kontzeju zabaletan, herriak bildurik hartzen zituen erabakiak, batez ere, gastuen banaketari, herri-basoei, lan publikoei lotutako gaietan. Kontzeju itxietan, udaleko kargudunak ziren erabakiak hartzen zituztenak. Kargudunak hautatzeko orduan, lau auzunetan banatzen zen hiribildua: Areiltza, Apiotza, Ermendurua eta Aroztegi. Hona hemen, besteak beste, hiriko kargudun nagusiak:

1. Alkatea: Alkate eta epaile. 1688ko ordenantzetan alkateak "jabetzaduna" izan behar zuela zehaztu zen.
2. Erregidoreak: Hasieran zortzi izaten ziren baina 1688an, laura jaitsi zen erregidoreen kopurua. Auzune bakoitzeko erregidore bat izendatzen zen. XVIII. mendetik aurrera, berriro ezarri zen zortzi erregidoreko kopurua.
3. Sindiko ahaldun nagusia: Bermeok zituzkeen auzietan hiria ordezkatzen zuena.
4. Eskribaua: agiriak jasotzen zituena.

Udaleko karguak hautatzerakoan harresiz kanpokoek ez zuten parte hartzen. Hautaketa, auzuneak txandakatuz burutzen ziren eta, hortaz, txanda egokitzen zitzaion auzuneko Alkatea eta alkateordea hautatzen ziren. Esan behar da, auzuneetako erregidoreak, zozketaz hautatzen zirela.

1753ko ordenantzetan, karguak hartzeko baldintzen murrizketa handia ezarri zen: diruduna, hidalgoa, kulturaduna eta elebiduna (gatzelania jakin beharra, alegia) izan behar zen.¹⁰⁴

* * *

101 Iturriza, J. R. (1793), II; 26

102 *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo* (1972); 115-116

103 Zabala, Angel (1928); I; 278-279

104 Prado Antunez, Ana Isabel (1999); 162-164

Borbondarrak hartzean Gaztelako erregetza, monarkiaren eredu zentralizatzaileagoa ezarri zuten eta Bizkaiaren kasuan ahalmen handiagoak eman zitzaizkion korrejidoreari. Zentralizazio prozesu honetan kokatzen da, aduanak portuetan eta, Portugal eta Frantziako mugetan ipintzea agintzen zuen 1717ko abuztuaren 31ko dekretua, eta bere ondorioz sortutako matxinada¹⁰⁵. Eragin zuzena izan zuen aginduak kostaldeko portuetan eta bereziki Bermeon, non istilu gogorrak izan ziren¹⁰⁶.

1722ko urte honetan, lehenago esan den legez, sute ikaragarria jasan zuen Bermeok XVIII. mendea, orokorrean, loraldi garaia izan zen. Bermeon ere bai; mende honetan, bere jarduera ekonomikoaren berregituratzea gertatu zen: merkataritza arloa bertan behera utzi eta arrantzarako joeran murgildu zen.

Mendearen hasieratik erakutsi zuen udalak moilak konpontzeko ardura. Itsasoak hainbatetan hondatzen zituen portu bietako moilak eta beste hainbestetan egiten ziren konponketa lanak.

XVIII. mendean, portuko azpiegiturretan ez ezik, bestelako lan publikoetan ere aha- legin handiak egin ziren. Bermeotik Bilborako galtzadan (Erregiñazubi - Almika - Laubidietara - Oiangorta) konponketak eta berrikuntzak egin ziren: 1775ean, Erregiñazubitik Al- mikiarako tartean¹⁰⁷ eta 1779an, Astazabaletik Laubidietarakoan¹⁰⁸. Oiangortako zubia ere, urte berean berritu zen, Gabriel Kapelastegiren ikuskapenarekin¹⁰⁹. 1798an Arrizu- rietatik Oiangortako zubirainoko galtzadaren tartea konpondu zen¹¹⁰. Sanjuanbideko gal- tzadaren ere, Ormabarrietatik Araneko kurtziorainoko tartean, konponketak egin ziren 1786an¹¹¹.

Kaleetan, harresiko portaletan eta hiriko zenbait eraikuntza berezietan ere, konpon- keta lan ugari egin zen: 1722ko suteak udaletxea erre zuenez, berria eraikitzeko beharra zegoen eta hala egin zen 1732an¹¹². 1739an konponketa lanak egin ziren Errenteriarpor-

105 Fernandez de Pinedo, Emiliano (1974); 391

106 1718ko irailaren 5ean, kontzeju zabalera deituta, Bermeoko herria, goiko plazan, udaletxe aurrean bilduta, alkatearen eta honen anaiaren aurka altxatu zen. Juan Tomas Eskoikizkoa, alkatea, ez zegoen bileran. Honek zerbait susmatzen zuen eta Talako Andra Maria elizaren babesean izkutatuta zen. Kontzejuak batzordea bidali zuen eta alkatea, elizan bertan atxilotuta mantentzea erabaki zen.

Aurreko urteko abuztuaren 31ko dekretua jarraituta, aduanak itsasora aldatzea agindu zen. 1717ko urriaren 21ean, dekretuak Bizkaiko Batzar Nagusien gaitzespena izan zuen, foruen aurkakoa zelako, baina batzarra- ren gainetik, aduanen leku aldaketa agindu zen.

1718ko irailaren 4an lehertu zen matxinada Bilbon. Matxinatuek, baserritarrek batez ere, merkatarien, eta Diputazio eta hirietako agintarien aurka egin zuten, hauek dekretua indarrean jartzen utzi zutelako. Matxi- nada Bizkaiko eta Gipuzkoako beste leku batzuetara zabaldu zen.

Bermeon gertakari gogorrenak irailaren 10ean izan ziren. Gernikan Batzar Nagusia burutu ondoren, Bustu- rialdeko elizateetakoak Bermeora abiatu ziren: gernikarrak, muruetarrak, busturitarrek, ibarrangeluarrak, mundakarrak eta guztien buru korrejidore-ordea, jendetzak behartuta. Goiko plazara egin zuten giltzapean zeudenak zigortzeko asmoz. Hantxe zeuden kartzelan, Bermeoko alkatea zen Juan Tomas Eskoikizkoa eta bere anaia Martin Antonio, Bilboko bigarren errejidore izanikoa; azken honen emaztea Manuela Lasso de la Vega, alkatearen alaba, Maria Josefa, eta honen senarra, Gregorio Esterripakoa, herriko oñaztar lehen erre- jidorea. Hantxe zeuden ere Fernando Olazabal eta Juan Tomas Goikoetxea, aduanako txalupako kaboa eta zaindaria.

Matxinatuak kartzelan bortizki sartu eta atxilotuak hiltzen hasi ziren. Alkatea eta Esterripa, gainera, leiho- tik behera bota zituzten. Antza, alkatearen alaba baino ez zen atera bizirik.

Ondoren, jendetza, Bermeotik irten zen Lekeitiora egiteko asmoz. Hurrengo egunera arte plazan geratu ziren sei gorpuk.

Urtarrilean, Koroak zapalketarekin erantzun zuen. Bermeoko hilketengatik muruetar bi eta busturitar bat hi- laraziak izan ziren eta beste zenbait kartzelaratuak. Handik hiru urtera, 1722an berriro aldatu ziren aduanak lehorrera eta Bizkaiko askatasun komertziala berrezarri zen. [Ik. Zabala, Angel (1928) II; 55-68 eta Fernan- dez de Pinedo, Emiliano (1974); 396].

107 BUA. 949/7. Caminos, puentes; 31

108 BUA. 842. Cuentas; 89

109 BUA. 842. Cuentas; 118

110 BUA. 1136. Libr. y recibos; 15

111 BUA. 949/7. Caminos, puentes; 64

112 Yradi, Juan Angel de (1844); 52-54

talen¹¹³, 1777an San Migelekoan¹¹⁴ eta 1797an Santa Barbarakoan¹¹⁵. 1730ean, Goiko plazako Bañosko kondeen jauregia bota zen¹¹⁶.

Elizetan eta ermitetan: 1705ean, konponketa lanak egin ziren Kurtzio, San Roke, San Migel eta San Andresko ermitetan¹¹⁷; 1708an Talako Andra Mariako kanpandorra gorago altxatu zen¹¹⁸ eta, 1711n, eliza honetako gangak beherago jaisteko lanak egin ziren¹¹⁹. 1732an, San Martineko ermita erabat desagertu zen, bere azken hormak bota zirenean¹²⁰. 1779an, Errosako ermita berreraiki zen, hondatzear zegoelako¹²¹ eta urte berean, konponketak egin ziren Santa Klara ermitan¹²². 1783an dorre berria eraiki zen Santa Eufemiako elizan Gabriel Kapelastegi maisuaren diseinuarekin¹²³.

XVIII. mendearen amaieran, frantziar konbentzionalen aurkako gerrarako prestakuntzak hartu zuten lehentasuna; 1792tik aurrera, kostaldearen babeserako *Matxixakoko*, *Galdizko*, *Tonpoiko*, *Talako*, *Baztarreko*, *Gazteluko* eta *Errosako* gotorlekuak eta bateriak ikuskatu eta konpondu beharra zegoen¹²⁴.

Eraikuntza hauetarako eskura eduki behar ziren gaiak (harria, buztina eta zura, alegia) bertako harrobietatik, basoetatik eta teilerietatik ateratzen ziren: *Galdiz*, *Arballo*, *Tribiz*, *Matxixakoko* harrobietatik; *Ametzaga*, *Adoberia* eta *Beitegiko* teilerietatik; eta, garai hartan ugari ziren herri-basoetatik. Basook ahitu ez zitezten, udalak urtero 300 haritz berri landatzeko betebeharra zeukanez, XVIII. mendean, Bermeok, lau mintegi mantentzen zituen: *Mañukoa*, *Aguriagakoa*, *Galdizkoa* eta *Zulueta burukoa*¹²⁵.

Mende honetan, Bermeoko udalak kontu handia hartu zuen bere jurisdikzioaz, bisitaldi ugariak eginez mugarriak beren tokian zeuden ikuskatzeko¹²⁶. 1754ko Udal orde-

113 BUA. 1560. Libro de cuentas; 303b

114 BUA. 967/4. Libr. y recibos; 54

115 BUA. 1136. Libr. y recibos; 62

116 BUA. 1560. Libro de cuentas; 209-211b

117 BUA. 1560. Libro de cuentas; 86

118 BUA. AL. 1680-1710; 396-396b

119 BUA. AL. 1711-1727; 8-8b

120 BUA. 1560. Libro de cuentas; 240

121 BUA. 842. Cuentas; 72-73

122 BUA. 842. Cuentas; 113b

123 Iturriza, J. R. (1793), II; 27

124 BUA. 991/2. Recibos; 96; BUA. AL. 1786-1806; 134b

125 BUA. AL. 1711-1727; 139. 1777. BUA. 967/4. Libr. y recibos; 34. 1779. BUA. 842. Cuentas; 23b

126 BUA. AL. 1711-1727; 243b-245. Honela deskribatzen dira mugarriak, 1725ean egindakoan:

“Y los monjones que estan corrientes y vien son los siguientes:

Primeramente, de Baxo de la Rosa junto al royo della

Ytten tras de la cassa y caseria de Goitiz la de arriba

Ytten la tercera en el somo de la cassa y caseria de Anparan

Ytten la quarta en el termino de Achoaren y este se alla caydo como contiene este decreto

Ytten la quinta debaxo de la cassa y caseria de Zuloetacho

Ytten la sesta en el termino de la cassa y caseria de Esquiaga acial nordeste en el primer aroyo

Ytten la setima en el paraje llamado Añabusti

Ytten la otava en el monte arriba de la cassa y caseria de Tribiz junto a un arbol biexo de aya aciala banda de dha casa de Tribiz

Ytten la nobena en el somo mas alto de Solibe

Ytten la decima junto al camino como seba a la anteyglesia de Arrieta donde suelen poner los señores alcal-des su firma en una aya

Ytten en el paraje llamado Escobeta ay dos monjones

Ytten en Escobeta barrena ay otro monjon

Ytten en el paraje llamado Ojaorta dos monjones

Ytten en el paraje llamado Olazarra otro monjon

Ytten en el termino de Goico ola otro monjon

Ytten en el Barrio de Zubiaur otro monjon”

1889-90ean egindako mugarriketan oso deskribapen zehatza egiten da, mugarri batetik bestera dagoen luzera ere adierazten da:

a) Bermeo eta Mundakaren artekoak:

1. *en el centro del puente de Larrosa a 60 m. de la desembcadura del arroyo*

nantzetan, zehazki agintzen da urtero egin beharreko lana izan behar duela mugarren ikuskatzea.¹²⁷

XIX. mendearen hasieran, gerra giroa nagusitu zen berriz. Oraingoa, inbasio napoleonikoaren garaia da. Frantsesen agintaritzaren aurrean jarrera desberdinak izan ziren; herrietako aberatsak frantsesen alde azaldu ziren nagusiki; Eliza eta maila ertaintekoak, haien aurka. Aipagarria da, frantsesen aurkako gerrarako soldadutzara deituak izan zirenean, Bermeo inguruko gazteek burutu zuten protesta udaletxea bortizki hartuta¹²⁸.

1809ko otsailaren 27an, Bermeoko udalak fideltasun zina egin zion Jose I.ari¹²⁹. Hurrengo urtean, sistema forala ezereztatua geratu zen. 1812an, ingeles eskuadra batek herria bonbardatu eta kalte handiak eragin zituen S. Frantzisko komentuan¹³⁰. Gerra,

-
2. en la orilla de las heredades de Iturrichu, proximo al manantial de Lamiaran
 3. en pieza del caserío de Juan Bta. Renteria (Deminigus) a 145 m. derechos
 4. en la pared de cerramiento de una viña del caserío Goitiz, al lado del camino que se dirige a la loma
 5. y caminando al oeste, a los 300 m., entre el alto de Goitiz y el punto de Basocolanda
 6. y a los 310 m., en el fondo de los pertenecidos de Anparan
 7. y a los 320 m., en el flanco oriental del robledal de Anparan
 8. y a los 350 m., en el solar del caserío de Anparan, mitad de cuyo caserío corresponde a Bermeo y la otra a Mundaca
 9. y a los 325 m., en el remate de la senda que baja de Enparan a Erramune y Achoaren, en frente de Achoaren a 6 m. del arroyo que cae de Arronategui.
- b) Bermeo eta Busturia artekoak:
Interrumpida aquí la divisoria con Mundaca por interposicion de la de Busturia, se trepó al este, y a unos 40 m. del caserío de Esquiaga en:
1. en el jaral del mismo caserío se izó otro mojón. Los sucesivos:
 2. a 600 m. al oeste, sobre los pertenecidos de Esquiaga
 3. a los 1.500 m., en Añabusti, conocido antes por hayal de Ostraidua, próximo a la toma de aguas de que se surte Mundaca
 4. a los 610 m. en landa de Sollube, al pie de la cresta
 5. a los 358 m., en la cuspide de la estribación del pico de Sollube
 6. en la misma punta.
- c) Bermeo eta Busturia, Arrieta, Meñaka eta Bakioren artekoak:
1. en la aguja de Sollube, donde se abandonaron las operaciones con Mundaca Para lo concerniente con Busturia se camino hacia el este y:
 2. a los 649 m. se halló el segundo
 3. siguiendo al este, con angulo bastante obtuso, otro, a los 1.500 m.
 4. a 600 m., otro al norte, en el alisal de la casa de Ezquiagabecoa
 5. a 1.000 m., otro, cursando una regata que parte de las jurisdicciones de Bermeo y Busturia, hasta la presa que recoge las aguas que vienen de Urquisarri
 6. a 95 m. al oeste, uno antiguo
 7. otro, recorriendo 110 m. hasta topar con el río que viene de Arronategui y Aculategui
 8. en los pertenecidos de la caseria de Zuloeta
- Por mutuo acuerdo se trasladó al sur de la citada agua para que desde este punto al molino de Tribiscoerrota sirviera de separacion el arroyo de Arronategui*
9. en el caserío de Achoaren
- d) Arrietarekin:
1. en la cumbre de Sollube
 2. y cayendo en línea recta hacia el manantial de Iturrieta hallaron a los 249 m. en sentido norte, otro, junto a la fuente de Iturrieta
- e) Meñakarekin:
1. caminando recto 140 m. al norte
 2. a los 1.189 m., atravesada la carretera de Bermeo a Munguia, en la conjunción del arroyo de Iturrieta con Ojangort
 3. a los 829 m. curso abajo, junto al puente o molino de Ojangorta
 4. y siguiendo el río, a los 1.800 m.
- f) Bakiorekin:
1. junto al solar del caserío Torre-Vieja, de forma que constituye uno de los costados del frente de esta casa con las de Bengolea y Becoerrota
 2. en el río, a los 100 m., en la banda derecha siguiendo el río hasta el mar; en un recorrido de 980 m. (A. Zabala, I, 24-26)

127 Ordenanzas de la villa de Bermeo; 117

128 Zabala, Angel (1928) II; 90-91

129 Zabala, Angel (1928) II; 94

130 Zabala, Angel (1928) II; 101

1813ko abenduan amaitu zen. Honek sortutako kalteengatik eta armadak hornitzetik eratorritako gastuengatik zor handiak gelditu zitzaizkion herriari. Zorra, hondamendia eta gosea jasan zuen Bermeok.

Baina ez ziren XIX. mendeko gerrak amaitu. Oraindik ikustekoak ziren mendea amaitu aurretik, gerra karlistetako eskenatoki nagusi bihurtu baitzen Euskal Herria. Egia esan, Bermeo, Bizkaiko geografiaren mutur batean egonik, gerretatik nahikoa aparte geratu zen.

1833an, Bermeoko udalak, Fernando Zabala diputatu karlistak aginduta, Carlos aldarrikatu zuen erregetzat, eta 1834tik 1839ra bitartean karlisten esku egon zen herria. Bermeoko liberalak Bilbora ihes egin beharrean aurkitu ziren eta beren ondasunak bahituak izan ziren¹³¹.

1865ean, Espainiako erregina Isabel II.ak bisitatu zuen Bermeo eta oso harrera ona izan zuen. Baina hiru urte geroago, 1868an, Bermeo, erregina hura desterratu zuen iraultzaren alde agertu zen¹³².

1872 eta 1873an, bigarren gerra karlista lehertu zelarik, Goirienea buruzagi karlistaren ekintzak izan ziren Bermeon¹³³. Carlos VII.a bera ere herrian izan zen irailaren 30ean, eta harrera ona izan zuen arren, esan beharra dago ez zuela foruen juramenturik burutu Santa Eufemiako elizan.

Alfonso XII.aren Borbonekoak erregetzan berrezarrikerik eta karlistak garaiturik, 1876an, Euskal Herrietako foruak deuseztatuak izan ziren. Aurrerantzean, Euskal Herriak, zergetan eta soldadutan, estatuko beste lurraldeek bezala laguntzera behartuak izan ziren.

Kudeaketa txarrak eta gerrek eragindako gastu handiengatik, hartzekodunei ordaintzeko eta lege desamortizatzaileen aplikazioa saihesteko, herri-lur ugari saldu zen Bermeon. Aurretik ere, 1744tik 1832ra bitartean, udalak partikularrei lur kontzesioak egiten zizkien baserriak eraiki zituzten. Pribatizazioak mende amaierara arte luzatu ziren¹³⁴. XVIII. mende amaieran, Bermeoko lurraldean (gaur Bakiokoak diren auzoetakoak kontuan hartu gabe) laurogei baserri inguru baziren, XIX. mende amaieran berrehun bat baserri zeuden. *Mañu* eta *Arranotegi* auzoak orduantxe sortutakoak dira¹³⁵.

* * *

1682ko errepartimenduen inguruko agiri batean¹³⁶, ondoko unitateetan banatzen zen Bermeo aldeko lurraldea:

1. *Harresi barrua*.
2. *Almika elizatea* (gaurko San Migel, San Andres, Almika eta Artika auzoek eratua).
3. *Hiribilduko baserriak* (Arane eta Agirre auzoetakoak).
4. *San Pelaio elizatea* (gaurko Bakioko eta Bermeoko S. Pelaio auzoek eratua).
5. *Zubiaur barrutia* edo '*partidua*' (gaur Bakioren eskumenekoa).
6. *Demiku auzoa*.

Gaurko *Arranotegi* eta *Mañuko* auzoak, antzina, despoblatuak izan ziren, herri-lurren eremua, hain zuzen.

Unitate hauek, populazioarekin edo biztanleriarekin lotutako entitatetzat hartu behar dira; giza harremanetarako eremutzat. Gizataldeek (edo baserriek) eratzen zituzten

131 Zabala, Angel (1928) II; 117

132 Zabala, Angel (1928) II; 222-230

133 Zabala, Angel (1928) II; 246

134 Zabala, Angel (1928) I; 132-137

135 BUA. 5. Rotul. de calles (1860)

136 BUA Akta Liburua. 1680-1710

auzo eta elizateak. Hala ere, elizateen kasuan, lurraldea ere markatzen zen, Bizkaiko Lur Zabaleko jurisdikzioa zegokion eremutat hartzen baitziren.

1500ean, San Pelaiokoek muga zehatzak errebindikatzen zituzten eta Almikakoek, 1558an, hiribilduko alkateak elizatean burututako eskumena ukatzen zuten¹³⁷: Hala ere, bai elizateen eta bai auzoen inguruetan zeuden baso eta mendiak, hiribilduko kontzejjuaren jabetzakoak ziren eta berak kudeatzen zituen¹³⁸.

XIX. mendera arte, banaketa espazialari dagokionez, lurraldearen erabilerak, herri-ondasunak esku pribatuera aldatu baino lehen, ondoko eskema erakusten zuen:

1. Bermeo hiritik hurbil eta kosta aldean, zenbait eremu udalaren ondasun "propioak" ziren. Hauen aprobetxamendua urtero enkante publikoaren bidez alokatzen zitzairen partikularrei: Tonpoi biak, Tala, Landatxu, Artza, Izaro, Errosako bideko belartzak, etab.¹³⁹
2. Bermeoko hiribildua, harresi barrukoa, eta harresiaren kanpoaldeko zenbait eremu ere ("extramuros" deituak), kaletarren bizileku ziren.
3. Hiribildua inguratzen duten eremuak, gehien bat, kaletarren lur eta ortuak ziren: Mendiluz, Ibarreta, Dibio, Portuburu, Artalde...
4. Baserrien ingurua, gaur egunekoa baino askoz laburragoa zen. Baserriak elizate eta auzoetan antolatzen ziren.
5. Herri-sail "komunak": udalaren ondasun hauek ("propioetatik" bereizten direnak) ustiakuntza anitza izaten zuten: baserriarren esplotazio-eskubideak, burdinolei saltzen zitzairen egurra, eraikuntzarako materiala, harrobiak, etab.

Eremu horien zoria desberdina izan da XIX. mendetik aurrera. Alde batetik hiriaren zabalkuntza dago, hiriaren inguruan zeuden eremuak eta izenak ere irentsi egin dituen: zaila gertatzen da gaur egun Arteazabal, Asuaga edo Usatorre bezalako lekuak kokatzea. Beste alde batetik, herri-sailen salmentak baserrien hedapena ekarri zuen, aurretik zeuden hariztien eta oihanen kaltean; eta horrekin batera, interes pribatuarekin lotuta dagoen

137 Ik. 92. eta 93. oharra.

138 Horrela, XVII. mendean:

"en los montes y terminos de concejiles de la vª de Bermeo en los puertos que llaman ecortixo deperirabien el cortixo degogençabala el cortixo deurquidia el cortixo dearañadia el cortxo de galborra el cortixo deaganaga en las carragas oxaurta sagarada" (VEKA. R.R. Ejec. L1422/15; 1)

"Por necesidad de dineros para acudir al pleito sobre jurisdiccion en la Real Chancilleria de Valladolid. Hipoteca de propios, rentas y montes concejiles: Galdiz, Ureta y Arambalz" (1618. BUA. 1161/6. Cancel. de censos; 95-95b)

XVIII. ean:

"Hipoteca de bienes y propios municipales para la construccion del ayuntamiento: montes de Galdiz que estan a la orilla del mar(...)" (1731. BUA. 1161/6. Cancel. de censos; 60b)

"Cobro por venta de cargas en los montes de Hermuas. Gastos por averiguacion de los montes de Hermuas, Aculateguis, Uretas y otros retazos" (1700. BUA. 1560. Libro de cuentas; 49b)

"1702: Galdiz, Arranotegui, Alchur, Gastañazarra, Arambalz" (BFA. K. 3583/1; 75b)

"Remate de montazgos de galdiz, Arranotegui, Alchur, Gastaña çarra y Arambalz" (BUA. AL. 1680-1710; 288)

"Venta de cargas en el monte de Alchur" (1711. BUA. 1560. Libro de cuentas; 134b)

"Trabajos en los montes comunes: sacar plantios por si nacidos, volverlos a plantar en parajes determinados despues de limpiarlos y espinarlos y cabas hechas en ellos y en los viberos y montes comunes: en el termino de Mañua: sacar 257 plantios (...) 407 plantios (...) 267 cagigos; cortar zarzas y espinos. Limpiar el vivero menor de dho termino" (1797. BUA. 1136. Libr. y recibos; 43)

Eta XIX. mendean:

"Razón de arboles que el ayuntamiento vende a remate. Baso Galan, Arech oquer, monte Ureta, arriba de Baso Galan, Mañuas, Gorta Ederra, Mintegui, al pie de la Cadena, Sesencorta, y al pie de Landa, arriba de Landa, Aculategui" (BUA. 1312/10. Acreedores)

"Juan Antº Ezquiaga solicitó en 1825 terreno para formar caserío en el termino de Arriandiyeta" (BUA. 1492. Comunicaciones)

"Reconocimiento por parte de varios concejales de los madroñales desde el monte Burgoa hasta los mojones de Meñaca, a causa de daños producidos por ganado lanar: (...) abajo de Arrisurieta entre Vaso Galan y Singuirra (...) sobre el molino de Ojangorta del puente viejo a la parte de arriba" (1849. BUA. 1289/2. Montazgos; 224-225)

139 *"Remate de las yerbas de los puntos del Tompon mayor, Tompon menor, la Talaya, Campo Santo, Reñazubi, la Rosa, de los chopos del camino real de la vª de Bilbao, de Landachu ó iglesia vieja y la de la isla de Yzaro"* (Cuentas mun.1843. BUA. 1160)

kanpoko zuhaitz espezien (pinua, eukalipto) zabalkuntza ere. Baserrien eremua ere aldatuz doa, gaur hauen alboan eraikitzen diren landetxeekin. Gauzak horrela, gaur egun ikus dezakegun Bermeo aldeko paisaia oso itxuraldatua dago antzinakoaren aldean, eta toponimian bere ondorioak izan ditu. Zentzu honetan, XIX. mendeko joeran, herri-sailetan eraikitako baserri berrien izendegian ikus dezakegunez, parajearen lehengo izenak mantendu izan dira: Sartzaileku, Ermu, Mintegi, Gortaederre, Urkamendi, Arrizurieta, etab., eta eskerrak honi ezagutzen dira gaur izen horien eta beste askoren kokapena.

Lehorreko komunikabideei dagokienez, bi galtzada nagusik lotzen zuten Bermeo Bizkaiko lurraidearekin:

a) Bilborako galtzada: *Erremedioportetik* abiatzen zen eta *Adoberiako zubitik* igaro ondoren, *Almikatik* gora egiten zuen *Laubidietaraino*. Hemendik, *Infernuerrekara* jaisten zen, *Oiangortako zubitik* aurrera eginez, Mungia aldera jotzeko.

b) Durangorako galtzada: *Artikerreka* gurutzatu (XVI.-XVII. mendeetara arte, *Aportategiko zubia* izenekoa zegoen *Erribera* inguruan; aurrerantzean, *Artzako zubitik* igarotzen zen erreka) eta *Mundakabidetik* (*Errosako bidetik*) abiatzen zen Gernika eta Durango aldera.

Bigarren mailako beste bi galtzada zeuden:

c) Sanjuanbidea: *Sanjuanportetik* abiatuta, *Arane* auzotik gora, *Burgo* mendiaren beste aldera egiten zuen *San Pelaiora* eta *Gaztelugatxera* jotzeko.

d) Bakiorako galtzada: *Dolareagatik* abiatuta, *San Martineko zubia* igaro ondoren, *Agirre* auzotik gora egiten zuen, *Zumarrietako landatik* behera Bakio aldera jotzeko.

XIX. mendean bide berri bi eraiki ziren:

e) Matxixakobidea, farolaren zerbitzurako. Bide hau estatuaren ardurakoa izan zen.

f) Bilbobidea: *Almikatik* gora izaten zen galtzada tradizionalaren ordean, Bilborako errepide berria eraiki zen 1829an. San Migel auzoaren iparraldeko hegaletik eta *Itubizkarburutik* gora egiten du.

Auzoetarako bideak:

g) Sanmigelbidea (*Ondarreburutik*, *Dibiobidetik* zehar *San Migel* auzora egiten du)

h) Sanandresbidea (*Aranondotik* gora)

i) Artikabidea (*Artikerreka* ondotik gora)

j) Demikuko bidea (*Mundakabidetik* *Demiku* auzora egiten duena)

k) Zarranerako bidea, *Kurtziotik* *Zarran* baserrirainokoa.

l) XX. mendean, Matxixakoko eskolatik gora, *Talaitik* zehar, *Bakiorako bide berria* ireki zen.

Azkenik, bai hiriko edozein puntutatik eta bai baserrietatik, eliza edo hilerrietara joateko, *andabideak* zeuden. Tradizioak zehatz definitzen zituen nondik nora izaten ziren bide hauek.

Bilboko trenbidea 1881erako, Sukarrietaraino zegoen eraikita eta 1955ean luzatu zen Bermeoraino.

* * *

XIX. mendean, Bermeo tradizionalako zenbait elementu ezaugarri aldatu edota desagertu egin ziren:

Hasteko, aldaketa nagusia aipatu behar da: udalaren autonomia ekonomikoaren galera. XIX. mendera arte, batez ere herri-lurren ustiakuntzarekin, baliabide ugari izan ohi zuen Bermeok bere gastuei aurre egiteko. Baina mende honetan udalaren lurralde-ondasun ia guztiak besterenganatu ziren kontzesioen eta desamortizazioen bitartez. Estatu liberalaren helburuetako bat izan zen lurren pribatizazio hau. Ondorioz, udala, ekonomikoki, estatuaren edo agintaritzaren probintzialen menpean geratu zen; gertakari honek bere ondorio politikoak ere izan zituen.

Lurren pribatizazioak, luzera, Bermeo aldeko mendietako landaretzaren aldaketa ekarri zuen: apurka-apurka berezko basoak desagertuz joan ziren eta lehengo amezti, harizti, haltzadien lekua, pinu eta eukaliptoen plantazioek hartu zuten.

XIX. mendera arte, herriko hilerriak elizen inguruetan egoten ziren. Talako Andra Maria ondoan, Santa Eufemia ondoan. Mende honetan, izurriteetatik babesteko eta leku haiek txiki geratu zirelako, hilerriak herritik kanpora ateratzea erabaki zen. 1832an *Or-mabarrietan* eraiki zen hilerri berria, eta hau ere txiki geratu zenez, 1886an, *Mendiluzen* eraiki zen, gaur, oraindik, erabiltzen dena¹⁴⁰.

Hiribilduko harresia apurka-apurka desagertuz joan zen: batzuetan, etxeak hesira atxiki eta harresiaz jabetu zirelako; besteetan, harresiko harria saldu egin zelako. Portaleak ere, XIX. mendean zehar ia denak bota egin ziren: 1827an *Erremediokoa*, 1829an *San Migelekoa*, 1833an *Santa Barbarakoa*, 1886an *Beiportalekoa*. Gaur, *Sanjuanportale* da zutik mantentzen den bakarra¹⁴¹.

XVIII. mendearen amaieran, Talako Andra Maria eliza hondatuta, eliza berria eraikitzea pentsatu zen Goiko plazan, udaletxe aurrean, Bañosko kondeen jauregia egon zen lekuan. Lanak 1820an hasi ziren eta 1866an zabaldu zen eliza berria¹⁴².

Mende amaieran kaleak argitzeko instalazio elektrikoa jartzen hasi zen.

* * *

XX. mendearen hasieran, Bermeo mundu tradizionaletik industrialera igarotzeko lehen urratsetan aurkitzen zen. Populazioz, Bizkaiko hirugarren herria zen, Bilbo eta Barakaldoren atzetik.

Jarduera ekonomikoaren ikuspuntutik, hiru taldetan banatuta zegoen Bermeoko gizartea: arrantzaleak, kaletarrak eta baserritarrak. Arrantzaleen taldean, patroï, armadore edo tostarteko, adineko edo gazte izatearen arabera, desberdintasunak zeuden, baina itsasoko lan gogorak sortaraziko elkartasun-harremana zen nagusi. Oso garrantzizkoa zen emakumeek betetzen zuten lana arrantzale familietan: sareen konponketa, arrainaren salmenta, arrain-fabriketako lana. Kaletarren taldea, artisauek, merkatariek, dendariak, abokatuek, medikuek, apaizek, enplegatuek, eta abarrek osatzen zuten. Azkenik, baserritarren artean, gehienak, maizterrak ziren, etxe eta lurrengatik errentak ordaindu behar zituztenak¹⁴³. XIX. mendean herri lurren salmentaz sortutako baserri berrietan, berriz, baserritar gehienak jabeak ziren¹⁴⁴.

1912an, gertakari tamalgarri batek goibeldu zuen Bermeo. Abuztuko arratsalde triste batean, Kantauriko arrantzale gehienak itsasoan zirela, galerna ikaragarria sortu eta ondorioz 140 lagun hil ziren, eurretatik 116, bermeotarrak¹⁴⁵.

Lehen Errepublikaren eta bigarren gerra karlistaren ondoren, Berrezarkuntzako sistema politikoa indarrean jarri zelarik, oposizio politiko nagusia, kazikismoaren aldeko eta kontrakoaren artekoa izan zen. Garrantzitsua izan zen, zentzu honetan, euskal nazionalismoaren erroa, kazikismoaren aurkako lidergoa hartuz. Sufragio unibertsalaren ezarkuntzarekin, urteak aurrera egin ahala, euskal nazionalismoa herriko lehen indar politikoa izatera iritsi zen.

Primo de Riveraren diktadura garaian, euskal nazionalismoaren ekintza politikoak debekatuta geratu zirenez, ekitaldi kulturaletara mugatu behar izan ziren euskal adierazpenak. Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, euskal nazionalismoa berriro nagusitu zen beste aukera politikoen gainetik. Aipatzekoak dira garai honetan, 1933ko lehen emakumeen sufragioa eta 1934ko batzoki berriaren inaugurazioa.

1803an, San Pelaio eta Zubiaurreko auzoak, Bermeotik desanexionatu eta Bakiora biltzeko saioetan hasi ziren. 1820an, gobernu iraultzaileak onartu egin zien eskaria, baina

140 Zabala, Angel (1928) I; 372-373


141 *Estudios socio-económicos comarcales. Guernica-Bermeo* (1972); 120

142 Zabala, Angel (1928) I; 352-355

143 Aizpuru, Mikel X. (1990); 3-12

144 Bermeoko eta Gipuzkoa aldetik etorritako nekazari eta artzainek zuzenean erosten dituzte herri lur sailak baserriak eraikitzeko. Honen berri, XIX. mendeko baserri horien fitxetan ikus daiteke.

145 Aizpuru, Mikel X. (1990); 91



1925-27. San Pelaio eta Zubiaur auzoen desanexioaren inguruko mugak.

1823an, berriro itzuli zitzaizkion auzoak Bermeori. Hala ere, bi auzo haien saioak jarraitu egin zuten 1834, 1845, 1856, 1882 eta 1894an. Azken saioa 1925ekoa izan zen eta lortu ere egin zuten Bermeotik aldentzea eta Bakiora elkartzea. 1927ko urrian atera zen ebazpena¹⁴⁶.

146 Zabala, Angel (1928) II; 506-511. Desanexio agindua eman ondoren, beste kontu bat zen Bakio eta Bermeoren arteko muga berriak nondik izan behar zuten zehaztea. Alde bakoitzak bere proposamena egin zuen. Bermeoko udalak ondoko proiektua aurkeztu zuen:

“Como punto de partida de la línea de deslinde se exige el conjunto de las dos casas que se agrupan en la proximidad de la escuela municipal costeada y sostenida por Bermeo en el extremo oriental de la llamada playa de Baquio. Una de ellas la mas proxima a la escuela es tambien propiedad del municipio de Bermeo. La otra casa tambien proxima procede sea incluida por su escasa distancia a la escuela y lo injustificado de tener que acudir los niños a otro centro docente mas distante. Partiendo de este punto limite, casa llamada Erdico Venta, y dejando a la misma dentro de la jurisdiccion de Bermeo, se trazan dos alineaciones, una paralela a la fachada oeste de la casa y a 10 metros de la misma hasta la playa, la cual queda dividida en dos partes proximatemente iguales y cuyos extremos son el mar y el borde del camino que existe entre las casas antes descritas y la carretera de Baquio a Bermeo. Desde este ultimo punto arranca la segunda alineacion que llega hasta las proximidades del caserío Uribarri en el punto C., quedando este caserío en la jurisdiccion de Baquio; en este punto se desvia para continuar con la tercera alineacion hasta el punto D., en la proximidad del caserío Ardanza que tambien queda en la jurisdiccion de Baquio. Continua desde este punto con la cuarta alineacion hasta llegar a E., que viene a ser el pie de la ladera que se levanta sobre la Vega y que se halla en la margen izquierda de un camino para el servicio de heredades. Desde este punto se dirige con la alineación quinta siguiendo la margen izquierda del citado camino hasta el punto F., frente a la pared de cierre representada en el plano, el cual se desvia con la sexta alineacion hasta el punto G., en la proximidad del caserío Echechubarri, quedando éste así como el de Zubiaur, Tabernazar, Jauregui, Musiquena, y todos los demas que pueden verse en el plano en jurisdiccion de Baquio. Desde el punto G., parte la septima alineacion que llega hasta el punto I., en la proximidad del caserío Goicoeche, quedando este en jurisdiccion de Baquio, y quedando en jurisdiccion de Bermeo los caseríos Ugalde y Ugaldeche, siguiendo desde el punto I., con la octava alineacion

Francoren diktadurapean, erakunde frankistak ezarri ziren herrian eta funtzionarioen kontrola, lanetik kanporatzeak, eta zapalkuntza nagusitu ziren.

Franco hil eta geroko hauteskundeetan zehar, nabaria izan da euskal nazionalismoaren nagusitasuna, bere adar desberdinetan.

XX. mendean, Bermeoko portuan aldaketa handiak egin izan dira. 1890etik 1903ra Portu berriko lanak eginak ziren eta gaurko Lamera eratu zen¹⁴⁷; baina hau ez zen nahikoa, beharrezkotzat hartzen zen garai hartan, portuko sarrera era egokian babestea ere. 1901etik 1908ra, *Bañeratik Boniatxeko* baixerraino olatu-moila bat eraikitzeko zenbait proiektu egin ziren eta azkenean, 1912ko galernaren ondorioek eraginda, 1913ko

hasta el punto H., en donde se termina en su encuentro con el rio Estepona que es el limite actual de jurisdicciones." (BUA. 881/36)

Bakiok, bere aldetik, beste proiektu hau aurkeztu zuen:

"Desde el punto señalado con el nº 1 situado en Ichaso-alde, de la heredad Solo-nagosi del caserío Ermua-becoa en línea recta hasta un punto señalado con el nº 13, situado en la torre de Burgoa, siguiendo desde este punto en línea recta hasta un punto señalado con el nº 14 situado en Erlebaso-aspico en el cruce de dos caminos de servicio, siguiendo desde aquí en línea recta hasta un punto señalado con el número 16 situado en Gorozogane, continuando desde aquí en línea recta hasta un punto marcado con el número 18 situado en Mañugoiko-landa en el camino de Mañugoiko a Mintegui, continuando desde aquí por el eje de este camino hasta un punto señalado con el nº 21 situado en el borde de dicho camino y en el sitio denominado Mintegualde, continuando desde aquí hasta el punto señalado con el nº 22 situado cerca del origen del arroyo Mintegui, siguiendo desde aquí por el eje de dicho arroyo hasta el encuentro con el arroyo Infernucoerrecá, siguiendo desde este punto por el eje de dicho arroyo hasta su encuentro con el río Estepona o Concha que deba ser el mojon de tres terminos de Bermeo, Baquío y Munguía". (BakUA. 1/19)

1929ko urriaren 5ean, Gobernuak bidalitako peritoaren txostenean baliogabetu egin ziren proposamen biak eta hirugarren bat eman zuen, ondoko arrazoiak argudiatuta:

1. Bermeoren proposamenean, San Pelaio eta Zubiaur auzoetako hainbat baserri geratzen ziren Bermeo barruan, nahiz eta eurak Bakiora elkartzea nahi izan: desanexioa eskatu zuten 135 biztanletatik 59 besterik ez ziren gustora geratuko.
2. Bermeoren proposamenak San Pelaioko eliza, hilerria eta auzoko etxe multzo handiena uzten zuen Bermeo barruan, eta hau 1927ko Aginduaren aurka zegoen.
3. Bakiok nahi zuen mugarekin, problemendurik gabeko lurralde zabala geratzen zen Bakio barruan eta baita Bakiora bildu nahi ez zuten zenbait baserri ere.

4. Gaztelugatxeko San Juaneko ermita bermeotarren benerazio handiko lekua izanik eta Bermeotik kanpo jartzeak istilu gogorak ekar ditzakeela kontuan hartuta, Bermeo izaten jarrai dezala adierazten txostenenak.

5. Azkenik, proposatzen da Bakiora elkartzea eskatu duten baserri guztien nahia betetzea.

Ondorioz, ondoko muga proposatu zuen Antonio Fernandez Sola, Ingeniari Geografoak:

"desde el punto de interseccion de la línea de la costa con la alineacion determinada por el primer peñon situado dentro del mar Cantabrico al oeste del santuario de San Juan de Gastelugach con una piedra hincada señalada con el nº 1 situada en la parte mas alta de un monticulo que se halla en la divisoria de las aguas al oeste de una caseta destinada a deposito de materiales para la reparacion de dicho santuario, cuya caseta se encuentra en la margen oeste del camino del santuario de San Juan a Bermeo, siguiendo la línea limite desde el expresado punto de interseccion por la normal trazada al eje del mencionado camino hasta su interseccion con el mismo, siguiendo por el eje de dicho camino hasta la inflexion del mismo mas proxima a los caserios de Urizarreta y Urizarreta-eurrecoa quedando el santuario de San Juan de Gastelugach dentro del termino de Bermeo, continuando la línea limite desde dicha inflexion en línea recta hasta el cruce del camino antes mencionado con la carretera en construccion de San Pelayo a Machichaco, quedando dentro del termino de Baquío los caserios de Ercoreca, Urizarreta, Urizarreta-eurrecoa y Tabernacho; siguiendo la línea limite desde el mencionado cruce por el eje del camino del santuario de San Juan a Bermeo hasta una piedra señalada con el nº 2 situada en la margen sur de dicho camino y en terreno de monte bajo propiedad de d. Aniceto Uriarte en el sitio denominado Ariacolanda, continuando desde aquí en línea recta a una piedra hincada señalada con el nº 3 situada al S.O. y a 41 metros del anterior, en sitio de igual nombre y propietario, siguiendo desde aquí en línea recta al punto de interseccion del eje del camino (...) con el eje del arroyo de Urquichi señalado en una losa de la alcantarilla con el nº 4, continuando en línea recta a una piedra hincada señalada con el nº 5 en el sitio denominado Gollenburu a 52 metros al norte del camino de servicio del monte Luisien y a unos 25 metros al S.O. de un pino unico en este paraje, siguiendo desde este punto por la normal trazada al eje del camino de servicio del monte Luisien, continuando por el eje de este camino hasta encontrar el eje del camino de Mañuas por el cual continua hasta su interseccion con el de un camino de servicio cuyo punto se señalo con el nº 6, siguiendo desde aquí en línea recta al punto de interseccion de los ejes de los caminos de Elorrieta a Bermeo y de Suiturri a Baquío, cuyo punto se señalo en una piedra con el nº 7, siguiendo desde aquí por el eje del camino de Suiturri a Baquío hasta su interseccion con el eje del arroyo de Dico-aso por cuyo eje continua hasta encontrar el eje del Barranco del Infierno cuyo punto deba ser el mojon de tres terminos de Bermeo, Baquío y de Munguía. 5 de octubre de 1929." (BUA. 881/36)

1929ko abenduaren 9an adierazi zion Bizkaiko Gobernadore zibilak Bermeoko udalari, horrela dela muga. Bermeok errekurtsioa jarri zuen. Ez zitzaion arrazoia eman eta azken epaia, 1932ko uztailean eman zen.

errege agindu batez, lan hura egiteko proiektua onartu zen. Bostehun metroko olatu-moila egitea pentsatuta zegoen, baina 1929rako, oraindik 275 metro besterik ez ziren egin eta, 1962rako, 376 metro¹⁴⁸. Olatu-moilaren eraikuntzak, nolabaiteko kutsu politikoa izan zuen: Nardiztarrek Alfonso XIII.aren zuten eragina erabili zuten haren eraikuntza lortzeko, eta bide batez, beraientzat botoak lortzeko. Bermeoko udalak bere esker ona erakutsi zuen, lehenago *Carnicería Vieja* izena zuen kaleari, Venancio eta Enrique Nardizen aita zen Juan Nardizkoaren izena ipinita¹⁴⁹.

1955etik aurrera, ekonomiaren eta populazioaren hazkundearekin, Bermeoko hiriarren zabalkuntza ikaragarria gertatu izan da, inoiz izan den handiena. Sukarrietatik Bermeorako trenbidearen tartea eraiki zen urte hartan. Bermeo nabarmen zabaldu da harrez gero harresiz kanpora. Kaletarren ohiko solo-guneak ziren inguru asko hiriak irentsi ditu. Portura jotzen duten erreka guztiak estalita geratu dira hiri azpitik pasatzean. Industriaguneak eraiki dira hiritik kanpo. Baserri auzoetarako bideak autoentzat egokitu dira. *Gal-diz* gainean gasaren ustiakuntzarako instalazio itzela eraiki da eta bere eskutik *Pozuillune* bezalako inguru magikoak erabat suntsituak geratu dira¹⁵⁰. Arrantza arloak aldaketa nabariak izan ditu: baxurako ontziteriaren murrizketa, alde batetik, eta arrantza handiaren garapena, bestetik. Eta azken aldian, Bermeo garai berrietara moldatzeko proiektu berriak aurkeztu izan dira, errepidearen saihebideta edo kirol-portua bezalakoak.

* * *

Baserri-auzoak

Baserri ingurua tradizioz auzoetan banatua izan da eta hauek erabili dira baserriak zerrendatzeko orduan.

Auzoen izenak eurak ere, baserrien izenen antzera, forma desberdinak izan dituzte garaien arabera: ermita edo santutegi baten presentziak hagianimoaren nagusitasuna ezarri du kasu batzuetan edo, besteetan, baserri bat erreferentzia gisa hartuz, haren izena hartu du auzoak. Agian, San Andres auzoa antzina Urdaiaga auzoa izango zen, edo San Migel auzoaren alde batek Ermetxio izena izango zuen. Era berean San Pelaio auzoaren antzinako izena Gibelortzaga izan zen. Dena dela, auzoak adierazteko gaur mantentzen diren izenak erabili dira.

1860an eta 1897/98an egin ziren nomenklatorretan Bermeo aldeko baserri-auzoak lau kuarletean banatzen ziren:

Iparaldekoa: Arane auzoa

Hegoaldekoa: Demiku, Artika, Almika eta Arranotegi auzoak

Ekialdekoa: Agirre, San Migel eta San Andres auzoak

Mendebaldekoa: Mañu, Zubiaur eta San Pelaio auzoak

Hamaika auzo hauetatik bat, Arranotegikoa, berria da, 1860an sortua. Urte honetako nomenklatorrak azaltzen duenez, auzo berri honetara zenbait baserri bildu ziren: Almikako Longane, Urkamendi, Mintegitxu, Estratzaillune, Munape, Lokedo, Zumeldi eta Solozabaleta; Mañuko Madariaga eta Altxurraga; eta Artikako Akulategi.

Era berean, urte hartan, lehenago Mañukoak ziren hiru baserri San Migel auzora bildu ziren: Errematzane, Mundakatxu eta Kantarape.

Bestalde, ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, San Pelaio inguru geografikoan aurkitzen diren zenbait baserri (Azeretxo Goitia, Azeretxo, Azeretxo errota eta Altzaga, esate baterako) Zubiaur auzokotzat hartu izan dira urteetan; eta alderantziz, Zubiaurreko inguruan agertzen diren beste batzuk (Saitua, esate baterako) San Pelaio auzokotzat.

XX. mendearen lehen zatian, Zubiaur auzoa eta San Pelaio auzoko baserri gehienak, Bakioko udalera bildu ziren.

148 BUA. 1246/14. Rompeolas / baita ere, Ciriquiain-Gaiztarro, Mariano (1986); 217

149 BUA. 1246/11. Mejoras puerto.

150 Ik. Erkoreka, A. (1986-87); 157-174

Baserriez hitz egitean, bereizketa egin beharra dago. Lanean barrena “*historikotzat*” ematen direnak, XVI, XVII. mendeetan aipatuak direnak dira. Gaur Bermeoren eskumeneko lurraldean 85 bat dira orube zaharreko baserriak. Baserri “*historiko*” hauek, azpimarraturik ematen dira azpiko zerrendan. Horien aurrean, 138 bat baserri dira, lurren pribatizazioaren ondorioz, XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendean zehar eraikitakoak. Hauen artean sartu dira XX. mendean eraikitakoak ere.

1) **Arane** auzoak, udalerriaren ipar-mendebaldea hartzen du eta bi gune nagusi ditu: ohiko *Arane* eta *Kaboa*. Baserriak: *Itsasgane*, *Grandene*, *Txankane*, *Etxebarri* (eraldaturia), *Itsasalde*, *Patxotene*, *Azatarrotxu*, *Etxerre*, *Azatarro*, *Landabaso*, *Arane*, *Aranburu*, *Gibele*, *Altamira* (desagertua), *Flores*, *Iturrondo*, *Beitegi*, *Marinone*, *Kasakane*, *Santa Kruz*, *Abortaga*, *Axgane* (desagertua), *Gorostadi*, *Madari*, *Juliane* (desagertua), *Muskerritxune*, *Sartzailleku*, *Peruarezti*, *Albarezenebeko*, *Albarezenegoiko*, *Piezaetxe* (desagertua), *Iturrieta*, *Talaiepe*, *Bidekoetxe*, *Bekoetxe*, *Erdikoetxe*, *Goikoetxe* (desagertua) eta *Grandene* (desagertua).

2) **Agirre** auzoa, aurrekoaren hegoaldean, *Saitutik Zumarrietako landaren* mendebaldeko isurialderaino luzatzen da, auzo barruan sartzen direlarik *Txaoleta* izeneko baserriak ere. Baserriak: *Saitu*, *Foteroane* (desagertua), *Kalene*, *Agirrebarrenengo*, *Auzoko*, *Arrietane*, *Pellune*, *Pedru*, *Igartu*, *Artone*, *Bastegieta* / *Igartuko etzezarre* (desagertua), *Ormaetxe*, *Kantara*, *Luzarraga*, *Etxezuri*, *Makatzaga*, *Etxebarrimotzene*, *Errotatxu*, *Paulogorri* eta *Zezilione* (azken hauei *Txaoletagoiko* eta *Txaoletabeko* ere esaten zaie).

3) **San Migel** auzoa, *Dibiotik Goikoganeraino* hedatzen da. Auzo honetako iparraldeko hegaletik igotzen da Bilborako errepidea Sollubeko mendateraino. *Ermetxio*, *Itubizkar* eta *Goikogortako* guneak nabarmen daitezke. Aipatzekoa da ere, San Migel ermitaren presentzia auzo honetan. Baserriak: *Kurtzieta*, *Irukurtzieta*, *San Migel*, *Intxausti*, *Etxetxubari*, *Torre*, *Ermetxiobeko*, *Ermetxioerdiko*, *Ermetxioetxebari*, *Ermetxiogoiko*, *Jeronimone*, *Errotabari*, *Beasko*, *Azeretxo*, *Egi*, *Ibiñaga*, *Josune*, *Itubizkartzikerre*, *Itubizkarnagusi*, *Itubizkarnagusibari*, *Itubizkarbarri*, *Etxebarrierrekagoiko*, *Etxebarrierrekabeiko*, *Arkotze*, *Goikogorta*, *Baltzane*, *Errematzane*, *Kantarape* eta *Mundakatxu* (desagertua).

4) **San Andres** auzoa, *Aranondotik Truboietaganeraino* luzatzen da. Baserriak: *Aranondo*, *Udaetxe*, *Urdaiaga*, *Bidetxe*, *Etxebarrilanda*, *Lupetegi*, *San Andres*, *Nardiztxikerre*, *Nardiz* eta *Goienetxe*.

5) **Almika** auzoa, antzina elizate izandakoa, *Erregiñazubitik Urkamendiraino* zabalitzen da. Auzo honetatik igotzen zen antzinako Bilborako galtzada. Almikako Andra Maria eliza eta Aingeruguarda ermita dira auzoko eraikuntza erlijiosoak. Baserriak: *Orrotzane* (desagertua), *Txarakane* (desagertua), *Galartzane*, *Sabinetxe*, *Kalene*, *Bidartemotzene*, *Iruarrieta*, *Almikatu*, *Almikanagusi*, *Txindurtzabari*, *Txindurtza*, *Landape*, *Olagorta*, *Agirretxu*, *Bonbillarte* eta *Etxebarriaga*.

6) **Artika** auzoa, izen bereko errekararen arroko baserriek osatzen dute. Bermeo tradizionalako industrigunea izan ohi da, bertan baitzeuden herriko errota eta burdinolak. Horatik dator kio *Errotata* izena auzoaren errekaldeari. Baserriak: *Utzuene*, *Etxetxubari* (desagertua), *Txikitiñene* (desagertua), *Beledrone*, *Mazaleriaga* (eraldaturia), *Txukene*, *Santierrotane*, *Txominantone*, *Poiu*, *Garalde*, *Artiketxe*, *Landa*, *Fandangone*, *Paskualetxe*, *Arreta*, *Bengoetxe*, *Irabiene*, *Tranpa*, *Torre*, *Kafranka*, *Akerrota*, *Atsoarene*, *Erramuene*, *Olaerrotta*, *Enparane*, *Zulueta*, *Zuluetatxu*, *Frantzune*, *Majerine* (desagertua), *Nafarrolabeko*, *Nafarrolaerdiko*, *Nafarrologoiko*, *Tribiz*, *Urkisari*, *Ezkiagagoiko* eta *Ezkiagabeko*.

7) **Demiku** auzoa, udalerriaren ekialdean dago, Mundakarekiko mugan. Aipatzekoa da, elizez, Mundakako Andra Mariako barrutiari dagokiola auzo hau eta bertako Kandelarioko ermita. Baserriak: *Zarran*, *Errenta*, *Beiti*, *Fradu*, *Txomekane*, *Etxebarri*, *Uriartebeke*, *Uriartegoiko*, *Justu*, *Tontorre* eta *Errosape*.

8) **Arranotegi** auzoa 1860an sortutakoa da, Laubidietako ekialdean. Baserriak: *Akulategi*, *Altzurraga*, *Madariaga*, *Solozabaleta*, *Txinbelane*, *Zumeldi*, *Erramontxune*, *Loke*, *do*, *Etxebarri*, *Estratzailune*, *Munape*, *Mintegitxu*, *Urkamendi*, *Ariztitxu* eta *Longane*.

9) **Mañu** auzoa, XIX. mendean sortutakoa da, herri-basoen kontzesio bidez eraiki ziren baserriekin. Hiru gune nagusi ditu auzoak: *Mañualde*, *Elizalde* eta *Oiangortalde*. Auzo honetan, Karmengo eliza dago, 1887an donetsia. Baserriak: *Zabale*, *Biorgorta*, *Kolisone*, *Manutxuibarrene*, *Katalane*, *Balentiñene*, *Hipolitone*, *Komaistene*, *Mañugoikoa-tzeko*, *Mañugoikoaurreko*, *Ariztitxu*, *Bidetxe*, *Gortaederrebeko*, *Gortaederregoiko*, *Gortaederrediko*, *Bekoetxe*, *Etxebarri*, *Andirimieta*, *Etxetxu*, *Kasabariatzeko*, *Kasabariarreko*, *Bistalegre*, *Mintegi*, *Mintegipe*, *Olalde*, *Kristobalene*, *Mungiarrenegoiko*, *Mungiarrenebeko*, *Elizondo*, *Bentabarri*, *Irazabaleta*, *Olazarreta*, *Oiangorta*, *Arrizurieta*, *Erdikoetxe*, *Bentazarre*, *Ereñotzaga*, *Oiangortako errota*, *Landanegoiko* eta *Landanebeko*.

10) **San Pelaio** auzoa gaur erabat murriztuta dago, bitan banandua izan baitzen auzoko zatirik handiena Bakiora aldendu zenean. Bermeori egokitu zitzaion San Pelaioko zatia, mendebaldeko mendiguneko baserriek osatutakoa izan zen. Gune bi ditu auzoak: *Uretako* goialdea eta *Txaraleko* errekaren arroa. Baserriak: *Arantzadi* (desagertua), *Urki-di*, *Goientzabale*, *Erdikoetxe*, *Gisasti*, *Sagarraga*, *Zurtzuri*, *Txarale*, *Ermugoiko* eta *Ermubeko*.